argia.com

argia

2013ko urriaren 13a | LXXVI. urtea | 2.386 zenbakia | 3,90 euro

02386
9 771988 139093

Ez dago atzera bueltarik

- **Preso amak** Haurrarekin kartzelara joatea zer den
- **Beatriz Chivite Ezkieta** «Literatura, artea eta filosofia behar ditugu pertsonak aldatzeko»
- **Ruper Ordorika** «Musikaria baino lehen musika zalea naiz»
- **Orreaga taldea** *Munich 1962 Isildu egia* dokumentala argitaratzear
- **Net Hurbil** Quatar 2022ko azpiegituren eraikuntzan 4.000 langile hilko dira

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia

- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak

argia

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
✆ 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak

Azaleko argazkia: JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS

Azala: GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

BY SA

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: GaztelukoPlaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

gizarte kutxa
zugandik zugana

euskaraz bai

NON ZER

2013ko urriaren 13a, 2.386. zenbakia

ASTEKO GAIA

PRESOAK Seme-alabekin kartzelara. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 4

PERTSONAIA

BEATRIZ CHIVITE EZKIETA: «Hizkuntzaz harago, beste muga batzuk ditugu, beste harresi asko». REYES ILINTXETA / 10

GAIAK

ELKARTRUKE ESPERIENTZIA Evergreen unibertsitate aurrerakoitik Euskal Herrira. IKER BARANDIARAN / 15

IRITZIAREN LEIHOA

KAPITALISMOAREN NESKA-MUTILAK
BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI / 18

ETXEBARRIETA, PARDINES, OTEIZA ETA EGIGUREN
IÑAKI MENDIGUREN / 20

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Gizon festa. ITXARO BORDA / 20

ZIRTAK Erretiratuen sinonimatua. JOXERRA GARZIA / 21

ERDIKO KAIERA

RUPER ORDORIKA: «Diskoan bildutako abestien egile gehienen *telonero* izan naiz inoiz». LANDER ARRETXEA / 22

ZULOAK *Zarataren Erreginek* agur esan dute. MYRIAM GARZIA / 26

LITERATURA IGOR ESTANKONA / 28

MUSIKA MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR / 29

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 31

ALEA Marabilli, kultura eta festa lagunartean.
MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 30

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 33

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

TERMOMETROA

ORREAGA: «Autodeterminazio eskubidea edukiz hustu eta kontrakoa saltzen ari dira batzuk». MIKEL ASURMENDI / 36

NAFARROA OINEZ Argia Ikastola, Erriberako euskara eragile nagusia. SAIOA LABAKA / 40

HERRIRA Ustezko tentakuluak eta Estatuaren tentazioak
URKO APAOLAZA AVILA / 43

- Zoru patetikoa, lehendakari jauna.
PELLO ZUBIRIA KAMINO / 45
- Estatuaren formula zaharrak vs. herritarren zilegitasun berria. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Qatar 2022: esklaboek eraikitzen dute mundiala.
PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

PRESOAK

Seme-alabekin kartzelara

Umeak 3 urte bete arte, Espainiako Estatuan preso dagoen amak eskubidea du seme-alaba espetxe barruan berarekin izateko, Frantziakoan berriz, umeak urte eta erdi bete arte. Ama batzuek argi dute adin horretan haien alboan egon behar duela haurrak, kartzelan izan arren; seme-alaba senitartekoekin kanpoan uztea deliberatzen dute bestetzuek. Biak ala biak, umearen onerako egindako hautuak. Biak ala biak, hautu zailak.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

"Oso zaila da kartzelan egonik umea eduki nahi duzula eta lehenengo hilabete edo urteak barruan igaroko dituela erabakitzea. Ez da aukera pertsonala soilik, nire bikotekideaz gain (bera ere kartzelara joango zela bagenekien) familiak ere parte hartu zuen erabakian eta babes osoa eman zidaten hasieratik. Buruari asko eragin nion, badakigu espetxea ez dela eremurik aproposena ume bat izateko eta sentimendu kontrajarriak dituzu: alde batetik ama izan nahi duzu (32 urte nituen eta agian aurrerago ez nuen umerik izateko aukerarik edukiko) eta bestetik ez dakizu zeurekoi jokatzen ari ote zaren. Baina pentsatu nuen lehenago, gerra garaietan, emakumeek seme-alaba ugari izaten zituztela eta haiek ere ez zutela erditzeko prestaketa ikastarorik jasotzen edo egoera latzetan hezten zituztela haurrak. Aurrera jotzea hautatu nuen, unean-unean zetorrenari erantzuten joango nintzela. Denborarekin konturatu naiz zorte handia izan dudala, biziki harro eta pozik nago hartu nuen erabakiarekin, eta ikusi dut beste askok ama izan nahi baina ez dutela lortu, bikotekidea urrutiko beste espetxe batean izan dutelako edo Frantzian bis intimorik ez zegoelako… eta nahi eta ezin hori, hori bai da gogorra". Gasteizko Maite Diaz de Heredia preso politiko ohia da mintzo zaiguna. 2001ean atxilotu zuten, Amnistiaren Aldeko Batzordeen aurkako sarekadan, 2003an haurdun geratu eta 2004ko otsailean erditu zen. Harri semeak bost hilabete igaro zituen berarekin espetxean eta uda hartan fidantzapean kalera atera ziren biak.

> **"Diotenez umearen bizitzaren lehenengo hiru urteetan garrantzitsuena lotura eta harreman hori da, atxikimendu hori oinarri sendoa da umearen garapenean, eta erabaki nuen, mugak muga, bera nirekin egotea zela inportanteena"**
>
> Maite Diaz de Heredia

Euskal Herrian badaude emakumeentzako moduluak dituzten espetxeak –ez gizonezkoentzako adina, emakume askoz gutxiago dagoelako presondegietan–, baina ez dago ama eta haurrentzako modulurik. Araba espetxea (Zabaian) berria da, baita Iruñekoa ere, baina ez batak ez besteak ez dute aintzat hartu seme-alabarekin barruan egoteko aukera. Espainiako Estatuan, hainbat kartzela daude ama eta umea jasotzeko prestatuta: moduluak gainerakoen berdinak dira egitura aldetik, goiko solairuan ziegak daude eta behean patioa, jantokia, denda modukoa, telefonoak, komunak, gimnasio txiki bat eta telebista gela. "Berezitasuna da –zehaztu du Diaz de Herediak– ziegan zu bakarrik zaudela umearekin eta sehaska bat ematen dizutela. Soto del Realen eta Aranjuezen paretak Disneyko pertsonaiekin-eta zituzten apainduta eta haurtzaindegia ere bazegoen, modulutik aterata". Lau hilabetetik aurrera, sartu-irtenak egin ditzake haurrak, gainera umea paseatzera eta bestelako ekintzetara eramaten duten hainbat elkarte boluntario daude. Frantziako Estatuan ere badira amak hartzen dituzten espetxeak, baina Espainian baino kaskarragoak dira baldintzak, ama eta umea ziega txikietan eta isolatuta egon ohi dira. Frantziako legeak ez du orain arte bis intimorik onartu eta teorian debekatuta dago kartzelan haurdun geratzea.

Erditzear ziegan itxita

Madrilgo Soto del Realen zegoelarik, goizeko ordubatean urak bota eta ziegako txirrina (garitarekin komunikatzeko interfonoa) jo

DIAZ DE HEREDIAK UTZIA

zuen Maite Diaz de Herediak. Inork ez zion erantzun, ezta hurrengo lau orduetan ere, txirrina jo eta jo egon zen arren. Konplikazioren bat izan balu edo umea lehenago etorri balitz, auskalo zer gertatuko zatekeen. Baina heldu ziren azkenean, eta erizaindegira eta handik ospitalera eraman zuten. Erditu eta hurrengo egunak bakarrik pasa zituen gasteiztarrak ospitalean, ahaztu egin zutelako senitartekoei jakinaraztea hara eraman zutela. Ez zuen hasiera ona izan Diaz de Herediak, gertatutakoa salatuz idatzi zion kartzelako zuzendariari, eta Harri jaio eta astebetera Aranjuezeko espetxera aldatu zituzten.

Aranjuezen galarazita zegoen haur-kotxea sartzea –barrukoarekin moldatu behar zuten–, jostailurik ere ezin zuten ekarri kanpotik eta gutxi ziren barruan zeuden jolasgarriak. Txomin izeneko astotxo bat eta beste jostailuren bat baino ez zeuzkan Harrik. Amaren kezkak, dena den, bestelakoak ziren. "Aranjuezera oso nekatuta iritsi nintzen, ahulduta, eta normala den bezala zalantzaz beteta heldu nintzen, ume jaioberriarekin. Hasieran adibidez, era jakin batean hartzen nuen umea eta seme-alaba mordoxka izandako beste presoak inguratu eta esaten zidaten, 'gaizki hartzen duzu!' eta berriz ezartzen zidaten, modu naturalagoan. Preso politiko bakarra nintzen, baina nahiko ondo moldatu nintzen gainerako presoekin. Gero kolikoak izan zituen umeak, baina nik ez nekien zer zeukan eta kezkatuta nengoen, gosea zuela esaten zidaten beste presoek eta ez nekien bularra eman ordez besterik eman beharko ote nion. Telefonoz segituan amarekin edo ahizparekin hitz egitera jotzen nuen halakoetan, pediatra ere bagenuen. Egia da egoera horietan inor ez duzula ondoan, baina aldi berean, nolabait, nire barnerako erdi-txantxetan pentsatzen nuen lehenengo haurrarekin ingurukoengandik jasotzen den aholku piloa saihestu nuela eta onerako edo txarrerako, nik neuk hezi nuela hasieran. Kanpoan amatasunak artifizialtzera jo du pixka bat, liburu mordoa dago, internet… eta ematen du ume bat izan beharrean arazo bat izan behar duzula, zure bizitzara estralurtar bat iritsiko dela bat-batean. Hemen barruan, beste erremediorik ezean, senak esaten dizunari egiten diozu kasu".

Semea kartzelan izateko erabakiarekin "biziki harro eta pozik" dago Maite Diaz de Heredia (irudian, ama-semeak), baina une latzak ere bizi behar izan zituen. Goizeko ordubatean urak bota eta erditzear zela ziegako txirrina jo eta jo aritu zen lau orduz, erantzunik jaso gabe.

Haatik, espetxean erabaki ugari ez daude amaren esku. Inguru erdaldunak, adibidez, semea euskaraz hezteko nahia baldintzatzen zuen. Ahalik eta ongien eta gehien jaten saiatzen zen gasteiztarra, umearen pureak ere hartzen zituen, Harriri bularra ematen zionez hau ere ondo elikatuta egon zedin, baina

DANI BLANCO

"Barruan, beste erremediorik ezean, senak esaten dizunari egiten diozu kasu", dio Diaz de Herediak.

aurrera begira, bularra utzi eta bestelakoak jaten hasten zenean, kartzela barruan umea ondo nola elikatu, hori zuen kezka handienetakoa. Nola ez, haurraren osasuna ere bazegoen ardura nagusien artean: "Jaio eta bi hilabetera bronkiolitisa izan zuen, ospitalera atera gintuzten eta une horietan ahul eta inseguru sentitzen zara, batez ere erditzean izan nuen esperientziaren ostean. Salduta zaude nolabait, beraien esku, eta ardura hori etengabea da, beti zaudelako besteen pean eta euskal presoa izanik zurekin jolastu dezaketelako, estutu zaitzakete eta kontua da ez duzula zure burua zaindu behar, haurrarena baizik, berak du lehentasun osoa".

Umea kanpokoekin gehiago ez egotea ere bota zuen faltan amak, bestelako erreferentziarik ez izatea. Txema bikotekidearen eta senitartekoen argazkiak jartzen zituen ziegan, eta asteroko bisitaz gain, bis familiarra eta elkarbizitza-bisa zuten hiru hilean behin, baina tarte laburrak dira eta une garrantzitsu asko galdu zituen aitak, "gogorra da harentzat ere. Zortedun sentitzen nintzen, pozik, eta aldi berean apur bat neurekoi, Txemari eta etxekoei zerbait lapurtuko banie bezala, baina haurra nirekin izateak izugarri lagundu zidan, eguneroko indarra eman zidan han barruan".

Kartzelaren eragina vs. harreman estua

Harrik ez du espetxe garaia gogoratzen. "Jakin badaki han egon zela guk azaldu diogulako, baina modu naturalean bizi du eta ez da zerbait traumatikoa beretzat. Inkontzienteki eragiten al dien? Zaila da zehazten eta horri ere bueltak ematen dizkiozu buruan. Barruan daudenean berdina da dena: errutina oso markatua, paisaia eta aurpegi berak… Nire ustez Harri ez zen jabetzen, baina egia da ume helduxeagoak ikusi nituela eta haiek guardiak imitatuz jolasten zuten, edo ateak ixtera jostatzen ziren. Barruan denbora gehiago egon balitz, kontziente izango zen ziurrenik, adibidez miaketez, astero miatzen baininduten. Asteburu-pasa kanpoan egon ostean umeak negar batean bueltatzen ikustea gogorra zen. Adin batetik aurrera hasten dira sozializatzen eta jabetzen mundua askoz zabalagoa dela, eta niretzat ez zen erraza, badirudielako umea kaltetzen ari zarela, bere bizi kalitatea murrizten, lau pareten artean duzulako. Baina hala eta guztiz ere, Harrik 3 urte bete arte jarraitu izan banu kartzelan, nirekin mantenduko nuke segur aski. Azken finean, ezagutu ditut 3 urtera arte barruan egon diren umeak eta ez dut ikusten kalte egin dienik".

Nahiz eta kartzelan umea hezteak ageriko alde txarrak dituen, Maite Diaz de Herediak garrantzi handiagoa ematen dio harekin harreman estua garatu ahal izateari: "Diotenez umearen bizitzaren lehenengo hiru urteetan garrantzitsuena lotura eta harreman hori da, atxikimendu hori oinarri sendoa da gero umearen garapenarentzat, eta erabaki nuen, mugak muga, bera nirekin egotea zela inportanteena. Gero semeak bere bidea egin behar du eta egin du, ez naiz umea ama-zulo nahi duten horietakoa, baina 2007an Segurako sarekadan berriz atxilotu eta kartzelan umearengandik bananduta eman dudan sei urte hauetan, harekiko soka askatu dudan arren, bion arteko haria ez da inoiz eten, neurri handi batean, nire ustez, hasierako oinarri horri esker".

Erabakia ondorio guztiekin hartu zuela eta errepikatu egingo lukeela dio Diaz de Herediak. "Kanpotik agian epaitu egin gaituzte, baina egoera hau egokitu zaigu eta amatasunari uko egin behar diot espetxean nagoelako? Zoritxarrez, Euskal Herrian inoiz baino emakume gehiago dago preso politiko eta erabakia hartu behar duzu: arre edo ixo. Espetxea

gogorra da, hori da abiapuntua, baina dena balantzan jarrita, zalantzarik gabe baietz esango nioke galdetzen didanari, umea izateko. Umearekin ditudan kartzelako oroitzapenak batez ere onak dira, edo latzak direnak ere, umorez kontatzeko gai naiz gaur egun (erditzea adibidez). Azkenean, zure burbuila sortzen duzu, badakit non nagoen, miaketak daude tartean, eskuburdinekin zoaz erditzera, guardiaz inguratuta zaude… baina umea da lehentasuna, berau babestea, eta oskola sortzen duzu inguruan".

Alaba, hobe kanpoan

Preso sozialen bergizarteratzeaz arduratzen den ADAP elkarte arabarretik ziurtatu digutenez, espetxeratzen dituzten Euskal Herriko preso sozial ia denek seme-alabarik gabe joatea erabakitzen dute, familiarekin geratu ohi dira haurrak. Faktore nagusietako bat izaten da umea barrura sartu nahi izanez gero urrutira joan beharko luketela, Euskal Herrian ez baitago amentzako modulurik –sakabanaketa dela-eta, preso politikoek ez dute halako dilemarik–. Rosa María Gonzálezek kartzelan sartu baino hilabete batzuk lehenago izan zuen Naiara alaba, eta ahizpari eman zion haren zaintza. Familiaren babesa izateagatik zortekotzat du bere burua, haurra norekin utzi ez eta gizarte zerbitzuek umea kendu dieten presoak ezagutu baititu, "eta hori latza da". Kartzelan haurra izatearen aurka dago, "delitua egin dugunak gu baikara, ez gure seme-alabak. Gu markatuta uzten gaitu espetxetik igarotzeak, pentsa umearentzat zer den, ateek ixterakoan egiten duten hots lehor hori, uniformeak, isolatuta egotea… Nahiz eta txikiak izan, haurrek ere barneratzen dituzte halakoak, hobe daude etxean, familiarekin. Egun bakar batez Madrilgo Dueñasen egon nintzen, amen moduluan, eta lur jota bukatu nuen, eta egun bakar bat baino ez zen izan! Jolasean ari ziren han umeak, baina ez dakit… ez zen gauza bera, inolaz ere. Haur bati barruan ezin diozu eman zuk nahi duzun guztia, espetxea oso mugatua delako".

> **"Zure burbuila sortzen duzu, badakit non nagoen, miaketak daude, guardiaz inguratuta zaude... baina umea babestea da lehentasuna, eta oskola sortzen duzu inguruan"**
>
> Maite Diaz de Heredia

Droga-trafikoagatik eta orduko bikotekidearekin lapurretan aritzeagatik sartu zuten kartzelan González, 2004an. Zamorakoa da eta Leongo kartzelan zortzi urte eman ditu, baina Araba espetxerako aldaketa eskatu eta zortzi urtetan lortu ez duena zortzi hilabetetan eskuratu du Zabaian: pisu batean dago beste emakume preso batzuekin eta hainbat hezitzailerekin, Gasteizen. "Gogorra da familiarengandik hainbeste kilometro urrundu behar izatea onurak jaso ahal izateko, baina Leonen jarraituko banu, oraintxe bertan kartzelan nengoke". Espetxean sartu eta hilabete batzuetara, senitartekoei adierazi zien ez zuela bisita gehiagorik jaso nahi, irteteko baimenak aprobetxatuko zituela Naiararekin eta beste bi seme zaharragoekin aurrez aurre egoteko eta egun batzuk haiekin pasatzeko, "baina ez nuen nahi seme-alabek hemen barruan ikusterik, gaizki pasatzen dutelako eta nik ere gaizki pasatzen dudalako. Kanpotik bueltatzerakoan ere gogorra da, ez pentsa, negarrez itzuli naiz beti espetxera, baina…". Barruan, Naiararen ahotsa entzuteko telefonoan jartzen zion umea ahizpak, eta haren eboluzioaren berri ematen zion, harik eta Gonzálezek alabari buruzko konturik ez azaltzeko eskatu zion arte, "irteteko baimena nuenetan aprobetxatuko nuela alabaren ondoan egoteko, baina espetxe barruan ezetz, min handia egiten zidalako, ez baitzara ari ikusten egunez egun nola ari den hazten. 3 hilabete zituenean sartu ninduten kartzelan eta kalera ateratzeko

DANI BLANCO

Argazkian, Rosa María González, Gasteizko bergizarteratze pisuan. Kartzelan zela, alabaren eboluzioaren berri ematen zion ahizpak, harik eta Gonzálezek eskatu zion arte alabari buruzko konturik ez azaltzeko, "min handia egiten zidalako".

lehenengo baimena eman zidatenean urte eta erdi zeukan jada. Naiarak izeba deitzen dit, jakin badakien arren ni naizela bere ama. Ama nire ahizpari deitzen dio, nik eman diodalako bizitza baina hark hezi du, eta hura da bere ama". Naiararen argazkiak eta marrazkiak ere eramaten zizkion ahizpak, "eta dena ondo gordeta daukat, baina espetxeko gelan inoiz ez ditut jarri, latza delako, argazkiak ikusi eta jota geratzen zara, gauza arraroak pentsatzen hasten zara eta berriz ere drogetan eror zaitezke…".

Nola azaldu?

Gaur egun 9 urte ditu Naiarak, baina ez diote esan ama –harentzat izeba– kartzelan dagoenik, ikastetxean umeak zaintzen baizik. "Txikia da oraindik, 12-13 urterekin agian bai, hitz egingo dut berarekin eta gauza asko azaldu beharko dizkiot, zalantza ugari izango ditu-eta". Harriri ordea, beti azaldu diote egoera, hasieran oso modu sinplean, baina garbi. Batez ere, Diaz de Herediaren arabera, umearen jakin-mina asetzen joan dira, "neurtzen joan gara zer, zenbat azaldu, galdetu duen heinean. Uste dut asmatu egin dugula eta ondo ulertu duela, baina hasieran gogorra da, ezin duzula atera adierazi arren 4 urterekin negarrez joaten zelako bis guztietatik, ea noiz itzuliko nintzen galdezka behin eta berriz… Gurasooi sortzen zaigun beldurra da umeak sentitzea alde batera utzi dugula eta beti saiatzen zara argi uzten espetxetik ezin zarela atera. Sakabanaketa ere azaldu behar diozu, zergatik gauden urruti. Tamalez, errealitate hori bizi du eta modu ahalik eta naturalenean bizi dezan saiatu gara. Nik uste presoen seme-alabek heldutasun puntu bat bereganatzen dutela, egokitu zaien bizimoduak eraginda. Ez da Harriri ezer txarrik sumatu diodanik, baina heldutasun hori antzematen zaiola esango nuke, bidaia luzeak tartean (kexatu gabe), duen ardura, eta profil hori errepikatzen dela ikusi dut, ume izateari utzi gabe, hori ere garrantzitsua baita".

> **"Delitua egin dugunak gu gara, ez gure seme-alabak. Gu markatuta uzten gaitu espetxetik igarotzeak, pentsa umearentzat zer den. Nahiz eta txikiak izan, haurrek ere barneratzen dituzte halakoak"**
>
> Rosa María González

Bidaia luzeak egiten jarraitzen du Harrik, aita ikusteko. Txemak gutxienez beste lau urte eman behar ditu oraindik kartzelan, Puerto de Santa Marían, eta otsailean Harrik 10 urte beteko dituenez, elkarbizitzako bisak egiteko aukerarik gabe geratuko dira, hala dagoelako araututa. "Ez du hanka ez bururik, bat-batean, dirudienez, desagertu egiten da haurraren beharra, eta hilean ordu eta erdira mugatuko da aitarekin duen harremana". Rosa María Gonzálezi berriz, ondo bidean martxoan baldintzapeko askatasuna emango diote eta senarrarekin ari da etorkizuna planifikatzen. Seme-alabekin harremana izaten jarraitu nahi duela dio, baina ez du zaintza beregain hartzeko asmorik. "Ezin dut alaba hartu eta nirekin bizitzera eraman, ama txarra eta ahizpa txarra nintzateke. Pixkanaka egingo dugu dena, egoera bortxatu gabe. Izeba izatearekin pozik nago oraingoz".

Biek ala biek garbi dutena da erabaki zuzena hartu zutela. Ziurrenik hala da, hautu oso pertsonala baita, norberaren egoeraren, baldintzen, baliabideen eta printzipioen araberakoa. ■

GAU-BERANDUAN

Eraldatu egiten dira paisajeak gau-beranduan. Eder zena beldurgarri bihurtzen da eta beldurgarri zena eder.

PETTI

HARKAITZ CANO

JOXAN GOIKOETXEA

Azaroak

17

19:00etan

Antzoki Zaharra

Donostia

Salmenta: leihatila eta
www.kutxasarrerak.net

A&M KULTUR
PROMOTORA
619421153

argia

BEATRIZ CHIVITE EZKIETA

«Hizkuntzaz harago, beste muga batzuk ditugu, beste harresi asko»

Beste mundu bat posible da. Bea bezalako gazte askorekin lor daiteke, ezbairik gabe.

| REYES ILINTXETA |
Argazkiak: Dani Blanco

Nondik datorkizu "Ekialdezaletasun" hori?

Batxilergoa Italian egin nuen eta han genuen munduko arteari buruzko ikasgaian Ekialdeko artearekin zaletu nintzen. Unibertsitatea aukeratzeko garaian Amerikako Estatu Batuetara joan nahi nuen nazioarteko politika eta diplomazia ikastera. Hara bidali nituen eskaerak eta unibertsitate batean hartu ninduten, baina gero ohartu nintzen hori ez zela niretzat, politika gero eta gutxiago gustatzen zaidalako eta erabaki nuen neure gustuko zerbait hartzea. Pentsatu nuen nazioarteko harremanetarako artea oso garrantzitsua dela, horren bidez kultura ezagutzen duzulako eta kulturaren bidez pertsonak eta beren historia. Guk asko dakigu Mendebaldeko arteari buruz, baina beste guztiaz ezer ez. Hemen Japoniako artea oso estimu handian dugu eta asko hitz egiten da horretaz, baina Txinako arteaz piperrik ere ez dakigu. Herrialde ikaragarria da. Milaka urteko historia du eta kultur adierazpen ugari: 56 talde etniko daude, bakoitza bere kultura eta hizkuntzekin. Honekin batera txinera ikasten hasi nintzen hizkuntza jakinda errazago delako artea ikastea, horren inguruko liburuak irakurtzea eta artistekin hitz egitea. Orain laugarren eta azken urtea eginen dut eta jarraian tesia. Landuko dudan gaia da Londresko bigarren belaunaldiko txinatar artistek beren identitateaz duten ideia eta nola islatzen duten hori beren obran. Txinatarrena oso komunitate handia da han, baina artistak ez dira asko eta haien artean mota guztietako jarrerak daude: batzuek badakite txineraz, badira Txinan inoiz egon ez direnak, zenbaitek oso idealizatuta dute… Denetik.

Burlatatik 16 urterekin atera zinen batxilergoa Italian egitera, ikastetxe berezi batean. Nola izan zen hura?

Niretzat loteria modukoa izan zen. 11 urterekin egunkari batean beka batzuen iragarkia ikusi nuen. United World Colleges (UWC) edo Munduko Ikastetxeen Batasuna izeneko fundazioak kultur aniztasunaren bidez bakezaletasuna sustatzeko proiektua du. Horren baitan urtero hamar beka ematen ditu batxilergoa ikasteko munduko hainbat tokitan eta ikastetxe berezi batzuetan. Amak esan zidan 15 urtera arte itxaroteko eta hori egin nuen. Milaka pertsonarekin

NORTASUN AGIRIA

Beatriz Chivite Ezkieta (Iruñea, 1991ko martxoaren 16). Burlatan (Iruñerrian) hazia eta han bizi izandakoa 16 urtera arte. Txinatar Filologia eta Ekialdeko Artea ikasten ditu School of Oriental and African Studies (SOAS) fakultatean, Londresko Unibertsitatean. 22 urterekin sei hizkuntzatan mintzatzen da (euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, italiera eta txinera). Italia, Txina, Nepal, Eskozia, Taiwan eta Londres izan ditu bizitoki azken sei urte hauetan. Ogibidez haurrak zaindu eta itzulpen lanak egiten ditu. Tarteka ere idazten du. Iaz lehen saria irabazi zuen *Pekineko kea* izeneko poemarekin Iruñeko Udalak antolatutako egile berrientzako literatur lehiaketan.

batera aurkeztuta, zortea izan eta aukeratu egin ninduten. 45.000 euroko beka eman zidaten bi ikasturtetarako nik aukeratutako Italiako ikastetxean aritzeko. Elite intelektual bat eratzea da haien asmoa. Hezkuntzaren bitartez kultura, politika eta natura hobetzea da helburu nagusia. Herrien arteko kultur harremanak hezkuntzaren bidez sustatzea mundua aldatzeko.

Eta esperientzia horren ondoren, desberdin sentitzen zara?

Ni sentitzen naiz, sentitzen nintzena. Aukeraketa prozesu horretan badakite zer nolako pertsonak nahi dituzten. Haien bila doaz, gero formakuntza berezia ematen dizute.

Italiako egonaldia oso polita izan zen. Denok gaztetxoak, ikasten, itsasoa eta mendia aldamenean, mundua aldatzeko gogoz… Bazen utopia bezalako bat.

Eta handik Londresera eta gero Txinara. Zer moduz han?

Duela bi urte ikasturte batez joan nintzen Txinara. Han nahiko nahasia da guztia. Txinatarrak oso alaiak dira, oso ozenki hitz egiten dute, garagardoa edaten dute, lagunekin egotea gustatzen zaie. Alde horretatik gurekin antza handiagoa dute japoniarrek baino, adibidez. Hala ere, harrigarria da hango jendearen egoera: %70a pobrezian bizi da.

Yoga

"Yoga eta meditazioa zure gorputza eta burua bat egiteko bideak dira. Espiritualitatea norberak bere baitan darama, ez da kanpoko inon bilatzeko beharrik. Zure gelan, begiak itxi eta zure barnera sartu. Besterik ez da behar. Hori zuk ez baduzu hemen aurkitzen Ekialdean ere ez".

Ezberdintasun handiak daude klaseen artean. Hori gertatuko da gero hemen Mendebaldean, murrizketak eta oraingo erabaki askoren ondorioz. Txina ikaragarri handia da, baina zalantzarik gabe, gogorrena hirian eta dirurik gabe bizitzea da. Nik han mutil-lagun bat izan nuen 60ko hamarkadan egindako bunker batean bizi zena. Lurrazpian. Leihorik, komunik eta sukalderik gabe, arratoiekin. Mutil honek unibertsitateko karrera bat badu, baina ez dago lanik eta ez du erraza izanen bizimodu horretatik ateratzea.

Bestalde, klase dirudunetako gazteek Mendebaldeko dirua eta teknologia iristea nahi dute. Gehienei oso erakargarria egiten zaie gure mundua. Duten politika moldea edo zentsurak ez ditu gehiegi kezkatzen. Ez dute YouTube, baina badute Youku, ez dute Messenger baina bai QQ, ez dute Google baina badute Baidu eta badituzte Iphonak eta ordenagailuak. Oro har estres maila oso altua da han. Gainera kutsadura ikaragarria da. Egun batean, adibidez, irrati bidez aholkatu zuten haurrak ez jolasteko kalean, ez korrika eta salto egiteko airea oso kutsatua zegoelako eta osasunerako oso kaltegarria izan zitekeelako. Hori ez da nik nahi dudan bizimodua.

Nepalen ere bizi izan zara.

Katmandun sei hilabetez bizi izan nintzen barnetegi batean haurrekin, irakasle moduan.

No news, good news

“Lehenengo telefono mugikorra Londresen izan nuen 19 urterekin, zaintzen nituen haurren gurasoek eman zidatelako, zer gerta ere. Patata bat da, ez du kamerarik ez internetik… baina hori baino gehiago ez dut behar”.

Oso baketsua da. Jendea oso lasaia da baina han ere izugarrizko aldea dago dirua dutenen eta ez dutenen artean. Nepalen espiritualtasuna oso garrantzitsua da, Txinan ez. Batere ez. Han materialismoa da nagusi. Ia erlijioa da. Ni oso urduria naiz eta Nepalen oso lasai nengoen. Goizeko bostetan altxatu, ur hotzarekin dutxatu, ordu bateko meditazioa egin eta gero klaseak eman. Oso polita. Agian noizbait errepikatzekoa, baina ez horrela bizitzeko beti.

Ekialdean mundua beste modu batez ikusten dute?

Nik uste dut pertsona bakoitzak ikusten duela mundua modu batez. Nik ez dut nire ahizpak bezala mundua ikusten, adibidez. Donostiako Zinemaldian aritu naiz lanean eta han ezagutu dut Txinatik etorritako zine zuzendari bat. Lehen aldia zen Beijingetik ateratzen zena. Ez du ezta Shangai ere ezagutzen. Ez zekien ingelesez. Filmaren aurkezpenean galdetu zioten ea txinatarrak sentimendurik gabeko animaliak ote ziren, bere filma oso hotza eta gogorra delako. Eta nik esaten nuen, baina zer arrazistak, nola egin dezakete halako galderarik? Ingmar Bergman suediarrari halako galderarik seguru ez lioketela eginen. Gure buruan muga eta harresi asko dago eta hori aldatu beharra dugu.

Eta Eskoziako esperientzia?

Eskozia oso gogorra iruditu zitzaidan. Hotza zen eta alkoholismo maila, adibidez, oso altua. Gainera depresioaren kontrako Gobernuz Kanpoko Erakunde batean aritu nintzen lanean, dirua biltzen, bazkideak egiten, eta iruditu zitzaidan jendeak baietz esaten zizula, baina handik denbora gutxira uzten ziotela ordaintzeari. Oso tristea zen dena.

Aurten bi hilabetez izan zara Taiwanen.

Bai, hiriburuan, Taipein. Txotxongilo museo batean aritu naiz lanean. Japoniarrak eta Taiwangoak dira Mendebaldetik gehien hartu dutenak, horregatik haiekin harremanetan sartzea errazago da kanpotarrentzat. Oso giro polita eta sortzailea aurkitu dut han. Indigenak ere ezagutzeko aukera izan dut itzal txinatarren proiektu baten bidez.

Eta Londresera berriro.

Bai. Han gustura nago, baina dena oso garestia da. Ez naiz zinemara joaten dirurik ez dudalako. Ez daukat etxerik. Mutil-lagunarekin eta beste lagun batzuekin biziko naiz.

Eta ikasi bitartean lan egin… ahal den tokietan, ezta?

Bai, haur italiar batzuk zaintzen ditut han eta tarteka ere itzulpenak egiten ditut. Ahal dudana. Txinan kabaret batean lan egin nuen denboralditxo batez. Neska europarrak behar zituztela ikusi nuen eta dantza egitea asko gustatzen zaidanez aurkeztu egin nintzen. Han ere itzulpen lanak egiten nituen zenbait telefono aplikaziotarako, txineratik euskarara eta alderantziz. Beti lan txikitxoak.

Zaila dago lana aurkitzea?

Apirilean itzuli nintzenean harrituta gelditu nintzen hemengo giroarekin. Denak krisiari buruz solasean, langabezia, dendak itxita… Baina krisia mundu guztian sentitzen da eta are gehiago gaztea bazara. Nik sei hizkuntza hitz egiten ditut, goi mailako ikasketak ditut eta ez dut inon lanik aurkitzen. Soilik eskaintzen dizkigute praktikak eta horiek ez dira ordaintzen. Esaten dizute beharrezkoak dituzula zure curriculuma osatzeko, baina ordaindu inon ez. Momenturen batean hasi beharko dut dirua irabazten, ezta? Udan bi hilabetez Taiwango museo batean aritu naiz sosik batere kobratu gabe. Hegazkina ere ez zidaten ordaindu. Londresen bi jaialditan aritu naiz eta ez didate ordaindu. Donostiako Zinemaldian bi astez aritu naiz itzulpenak egiten txineraz eta ingelesez eta ez didate ordaindu. Donostian zegoena ez zen praktikak egiteko postu bat, boluntario lantalde bat baizik. Baina emaitza berdina da: doan egiten duzu lan. Beno, 150 euro eman zidaten. Gutxi gorabehera euro bat lanordu bakoitzeko. Ez da krisia bakarrik, esklabotza sistema berri bat da. Enpresek, eta enpresak ez direnek ere, pentsatzen dute onena dela curriculum harrigarria duen gazte bat hartzea denboralditxo baterako deus ordaindu gabe eta gero botatzea, hurrengo urtean beste esklabo bat hartzeko. *Unpaid internships,* ordaindu gabeko praktikak, esaten zaio horri. Nik erabaki bat hartu dut honen inguruan: ez dudala horrelako praktikarik gehiago onartu behar, ez delako zilegi. Nire lana, nire itzulpenak, nire eskuak nahi badituzte, ordaindu egin beharko dute. Hori da pentsatzen dudana, baina ikusiko dugu. Gauzak oso zailak jartzen badira Txinara joanen naiz. Han errazagoa da lana aurkitzea, hangoa ez bazara. Atzerriko aurpegiak bilatzen dituzte enpresa askotan. Momentuz ikasi

BEATRIZ CHIVITE EZKIETA

AZKEN HITZA

Bizimodu zoroa

Beari ez zaio gustatzen telefono mugikorren menpe, teknologien menpe, oro har, bizitzea. Ez du whatsappik. Soilik mugikor zahartxo bat Londresen dabilenean. Gainera azkar mugitzen da toki batetik bestera: hegazkinak, autobusak… Hau eromena! Hitzordua ezartzea ez da batere erraza izan. Nora deitu? Nola aurkitu? Mezuak bidali eta egun batzuetara, igande arratsalde batean, deitu zidan gelditzeko. Lehen hau normala zen. Orain salbuespena. Bearekin hitz eginez zer pentsatu ugari datorkizu burura, baita gure bizimodu azkar eta zoro honetaz ere.

egin nahi dut eta olerkiak idatzi, ea noizbait argitaratzen dizkidaten… Hori beste bide bat izan daiteke.

Iaz Iruñean saria irabazi zenuen. Euskaraz idazten duzu beti?

Gehienetan bai, batez ere ez ahazteko. Ene bakardadean horrela lantzen dut nire euskara. Beste olerki batzuk hizkuntzak nahastuz idatzi ditut. Nik uste dut hori dela munduaren irudia: nahiz eta hizkuntza asko jakin eta erabili, besteak ulertzea oso zaila da. Hizkuntzaz harago, beste muga batzuk ditugu, beste harresi asko.

Aita ere idazle ezaguna duzu, Fernando Chivite.

Bai, eta amak ere liburu bat argitaratu zuen, baina ni ez naiz haiek bezalakoa, idazle lasaia. Nik gehiago irudiak eta irudiak hartu eta jan eta jan egiten ditut, gero, barruan ezin diedanean gehiago eutsi, arrapaladan botatzeko. Bulimiko baten antzera jokatzen dut. Literaturaren bulimikoa naiz.

Beste arte adierazpideekin saiatu zara?

Esaten dute Arte Historia ikasten dugunok bagarela artista izan nahi baina trebeziarik ez dugunok. Asko gustatzen zait marraztea, eskuekin gauzak egitea, zeramika… baina ez dut uste artista naizenik, beraz arte historia eta artisten obrak ikastearekin konformatu behar.

Jolasa

Zaintzen ditudan haur italiarren bizimodua ikusita, iruditzen zait Londresko bizimodua oso tristea dela haurrentzat. Gogoan dut txikitan oinez Burlatatik Iruñera joaten ginela ibaiertzetik paseatzen, txipitxapak egiten, harresietatik Iruñean sartu, muztio bat hartu… eta hori oso polita zen. Haiek autoan, metroan, ibiltzen dira egunero eta ez dute toki garbirik lasai jolasteko".

Eta Londresen arte terapia ere egiten duzu. Zer da hori?

Down, autismo, depresio edo antsietate arazoak dituzten pertsonei laguntzen diegu artelanen bidez beren sentipenak adierazten. Hiru orduz emozio guztiak kanporatzen dituzte margo eta material desberdinak erabiliz. Guk laguntzen diegu esanez nola erabiltzen diren materialak, baina gero askatasun guztiarekin aritzen dira. Boluntario moduan egiten dut lan hori, baina esperientzia ederra da. Han dagoen energia oso ona da eta han bai ez naizela esplotatua sentitzen!

Etorkizunean zer gustatuko litzaizuke egitea?

Hezkuntza hobetzearen alde zerbait egitea gustatuko litzaidake, irakasle moduan, agian. Baina baita itzulpenak egitea, museoetan, jaialdietan, arte terapian aritzea. Hori dena gustatzen zait.

Hezkuntza nola hobetu daiteke?

Espainiako Gobernuak ez dio garrantzirik ematen hezkuntzari. Murriztu duten lehen gauza izan da eta hori da egin daitekeen okerrena. Etorkizuna hezkuntzaren bidez eraikitzen da. Irakaskuntza alorreko profesionalek garrantzi ikaragarria dute. Orain unibertsitatean sartzeko Magisteritza da nota apalena eskatzen duena eta ez luke horrela izan behar. Medikua izatea bezain garrantzitsua da, pertsonen burua salbatzen ari zarelako. Literatura, artea eta filosofia behar ditugu pertsonak aldatzeko. Hezkuntzan benetan sinesten duen jendea eta jakinduria transmititu nahi duena behar da. ■

ELKARTRUKE ESPERIENTZIA

Evergreen unibertsitate aurrerakoitik Euskal Herrira

Olympyan, AEBetako Washington Estatuan, The Evergreen State Collegue unibertsitateko Basque Country study abroad programaren arduraduna da Amaia Martiartu arrasatearra. Programa horren bitartez, 18 eta 22 urte arteko bederatzi gazte Euskal Herrian izan dira hiru astez, bertako politika, kultura eta ohiturak ezagutzeko asmoz.

| IKER BARANDIARAN |
Argazkiak: Stephano Garfield

Ikasle amerikarrak Goi Eskola Politeknikoan. Eskuman, Amaia Martiartu arduraduna, Geoff Bates programako irakasleetako bat eta Mondragon Taldeko Nazioarteko bisiten arduradun Mikel Lezamiz.

BEDERATZI gazte horien artean bada euskal jatorria duenik, baina gehienek jakin-min hutsez eman zuten izena, eta guztiak ezagutu eta aurkitutakoaz txundituta bueltatu dira Washingtonera. Euskal Herrira gehiago ikastera itzultzeko asmoa azaldu du batek baino gehiagok. Udan izan dira gurean eta ez dute ia atsedenik hartu. Etorri aurretik, Mark Kurlanskyren *Basque history of the world* irakurri zuten eta AEBetara bueltatu aurretik, Bernardo Atxagaren *Obabakoak*. Izan ere, bi liburu horietan oinarritu dituzte programaren nondik norakoak. Astean bitan Arrasateko AEKn euskara eskolak hartu dituzte (guztira 12 ordu) eta Mondragon Taldeko hainbat kooperatiba eta bi fakultate bisitatu dituzte. Egoera politikoaz ere mintzatu dira, Euskal Herria ondo ezagutzeaz gain AEBetan ezker sindikalgintzan diharduen Geoff Bates-ekin, Igor Letona preso politiko ohiarekin eta Amaiur alderdiko senatari Urko Aiertzarekin. Gernikako Bakearen Museoan izan dira, bestalde.

Nekazaritza ekologikoa eta baserrien ondarea ere landu dituzte. Hala, Debagoienako hainbat baserri eta azoka bisitatzeaz gain, Arrasateko Bioso baserrian gazta nola egiten

Laura Humprey eta Stephano Garfield, ikasle estatubatuarrak

«Alor guztietan daukazuen komunitate zentzua harrigarria da»

Basque Country study abroad programan parte hartu duten ikasleetako bi elkarrizketatu ditugu eta herrialde batek eta besteak eskaintzeko duenaz aritu gara.

"Esango nuke ingelesa dakigunok erraztasun handiagoa dugula euskara ikasteko, soinuak antzekoak direlako", adierazi digu Humpreyk (ezkerrean).

Zer da Euskal Herritik gehien harritu zaituztena?

Laura Humprey: Harremanetan oinarritutako baloreak dituzuela: negozioetan, familian... Eta sozialki duzuen bizitza handia. Gehiena izan da ona, bi gauza ezik: jendea zaborra lurrera botatzen ikusteak min handia egin dit, eta sumatu dut atzerritarrekiko aurreiritziak dituela jendeak. Beharbada hemen AEBetan baino kultura dibertsitate txikiagoa dagoelako.

Stephano Garfield: Hemengo komunitate zentzuak zur eta lur utzi nau. Amaia [Martiartu] behin baino gehiagotan saiatu zen hori azaltzen, eta hona etorri arte ez dut ulertu. Jendeak Olympyan beste modu batean egiten du bizitza publikoa.

Ez da oso ohikoa hain egonaldi motza egitera etorri eta euskara ikasten ahalegintzea.

S.G.: Hizkuntza zaila da, baina ez nik uste nuen beste. Eta, zinez, ikasten jarraitzeko asmoa dut.

L.H.: Nik ere sorpresa hartu dut, zailagoa izango zela uste nuelako. Areago, esango nuke ingelesa dakigunok erraztasun handiagoa dugula euskara ikasteko, soinuak gurearen antzekoak direlako; gaztelaniarekin aldiz, alderantziz gertatu zitzaidan.

Zer iritzi daukazue Mondragoneko kooperatibei buruz? Egingarria ikusten duzue halakorik AEBetan?

S.G.: AEBetan ere badira kooperatibak, baina ez hemengoen tamainakoak, ezta hain esparru zabaletan ere. Sinesgaitza da nazioarteko merkatuan lehiatzen diren enpresek pertsonen harremanak zaintzea eta gaizki dabilen enpresetako bati guztiek laguntzea.

L.H.: Ni gehien harritu nauena da taldearen barruan langileak enpresa batetik bestera mugitzeko aukera izatea; eta bestea, soldaten ratioarena: kooperatibetan 1 eta 8 artekoa da, eta AEBetan 1 eta 300 artekoa izan daiteke. Evergreenen inguruan halakorik sor liteke, baina hortik kanpo zaila ikusten dut. Behar handiko egoera bat izan behar du jendea elkartu eta halako apustua egiteko, Clevelanden bezala.

Zer ikasi duzue gugandik?

S.G.: Gauza asko! Guk bizi izandakoarekin alderatuta hain da ezberdina guztia: kooperatiben zentzua eta indarra, harremanen aldeko baloreak, hizkuntza baten aldeko lana... Adibidez, Emun enpresaren esperientziak eta elkarte gastronomikoek txundituta utzi naute.

L.H.: Stephanorekin bat egiten dut. Gauza bereziena hemen dituzuen baloreak dira. Eta oro har alderdi sozialak harrituta utzi nau: jendearekin aurrez aurre egotea, telefono edo internet bidez izan beharrean, oso arraroa da niretzat, baina oso gustuko dut. Ez dut etxera bueltatu nahi, han isolatuta bizi naizelako. AEBetan jendearekin denbora pasatzen dut, baina ez da kalitatezko denbora. Denbora hori hemen kalitate handikoa da.

Euskal Herrira itzultzeko asmorik baduzue?

S.G.: Bai, linguistikan interes handia daukat eta euskarari buruzko ikasketak sakondu nahi ditut. Izan ere, euskararena oso hizkuntza-egoera interesgarria da, kultura eta hizkuntza indartsuak dira eta oso lotuta daude. Datorren ikasturtean kontratu baten bidez bertsolaritzari buruzko ikerketa egiteko asmoa daukat Euskal Herrian.

L.H.: Hiru aste oso denbora gutxi da, baina niri balio izan dit Euskal Herriaz gehiago ikasi nahi dudala jakiteko. Jakina errepikatzea gustatuko litzaidakeela.

den ikasi dute. Ondare artistikora gerturatzeko helburuz, besteak beste Arantzazuko santutegian, Olleriasko Euskal Zeramikaren Museoan eta Eskoriatzan kokatua dagoen Ibarraundi museo etnografikoan izan dira, baserrietako lanabesak eta musika tresna zaharrak ezagutzen. Zugarramurdin ere egon dira, Inkisizioaz solastatzen.

Bestetik, Bilboko Guggenheim museora joan eta hiriak izan duen eraldaketa bere horretan ikusi ahal izan dute eta Urbia eta antzeko ingurune naturaletara urreratu dira. Asier Altuna zuzendaria gidari, *Bertsolari* filmaz gozatzeko eta bertsolaritzaren inguruan mintzatzeko parada izan dute. Eta nola ez, herrietako jaietan murgiltzeko aukera paregabea izan dute ikasle estatubatuarrek.

Hemen ikasitakoa AEBetan zabaldu

Amaia Martiartu oso pozik dago programak izan duen harrerarekin eta baikor azaldu da hurrengo urteetan izan dezakeen bilakaerarekin: "Behin baino gehiagotan, Evergreen unibertsitatean Euskal Herriko kooperatiben esperientziaz, hemengo ohitura, egoera politiko eta hizkuntzaz jardun dut, eta banuen gogoa ikasleei hori erakusteko. Gainera, oso gustura nago ekarri dudan taldeaz. Hemengoa ezagutu eta ikasteko oso irekita egon dira eta ez, batzuetan euskaldunok kanpoan aritzen garen moduan, norbere zilborrari begira". Irakasle arrasatearrak balio handia ematen dio atzerriko jendea ekarri eta ahalik eta modu osatuenean gure herria erakusteari: "Hemen ikasitakoa bueltan AEBetan modu aktiboan zabaltzen badute, hedabide handiek sortutako aurreiritziak apurtzen joan gaitezke".

Guk ere badugu haiengandik zer ikasia

Evergreen State Collegue, dena den, ez da ohiko unibertsitate bat. 70eko hamarkadan AEBetako hainbat irakaslek irakaskuntza eredu orokorretik at egongo zen unibertsitatea sortzeko ahalegina egin eta indarrak batuta Olympyan dagoen hau sortu zuten. Ordutik dago zutik eta ikasleen neurrira egindako eskaintza du oinarri. Arte Liberalak deritzon multzoa da eskaintza nagusia eta ikasleek hautatzen dute ikasi nahi dutena, ez baitago ikasgai zehatzik, diziplina askotariko programak baizik. "Adibidez, 16 kredituko programa batean Indiako filosofia, Pazifikoko itsas biologia eta Frantses literatura uztartzen dira. Hortaz, irakasleek beraiek sortzen dituzte programak, beste inoren menpe egon gabe. Are gehiago, unibertsitateko arduradunek ikasleak behartzen dituzte lehen urtean ahalik eta gai anitzenak har ditzaten, ikasketak euren gustura kustomizatu ditzaten", azaldu digu Martiartuk.

Evergreenen ez da azterketarik egiten eta ikasleren batek ikasgai oso zehatz batean interesa badu eta oniritzia emango dion tutore bat lortzen badu, aukera dauka gai hori bere kabuz landuta hainbat kreditu lortzeko. Inguruko presondegietan ere laguntzen dute ikasleek, baita errefuxiatuekin ere. Bitxikeria gisa, bertan ikasiak dira, adibidez, Los Simpson marrazki bizidun arrakastatsuen egile Matt Groening eta Macklemore hip-hop abeslari eta musikari ezaguna.

Halako ikastetxe ireki eta anitzak aurkako erreakzioak jaso ditu Washington inguruko alderdi tradizionalenen aldetik. "Lesbianen, punkyen eta hippyen unibertsitatea dela dio zenbaitek, baina AEBetako leku askotatik espresuki etortzen da jendea bertara ikastera, parekorik ez duelako. Askatasuna daukagu nahi ditugun alorrak aukeratzeko, eta hori modu aproposean egiten baduzu, zure heziketa ezin hobea izango da", kontatu digu Euskal Herria ezagutzeko programan parte hartu duen eta Evergreeneko ikasle den Laura Humpreyk. Martiarturen aburuz, oso interesgarria litzateke Evergreenen hezkuntza sistema zertan datzan Euskal Herrian ezagutzera ematea. ■

MADDI SOROA

Baleren Bakaikoa Azurmendi

✦

EHUko IRAKASLEA, EKONOMIALARIA

Kapitalismoaren neska-mutilak

JAKIN BADAKIGU gazteria izugarrizko langabezi tasa jasaten ari dela. Duela zenbait hilabete, zutabe honetan bertan, zenbait datu eman nituen, bai estatukoak, baita Hego Euskal Herrikoak ere. Azkenaldian ez da egoera hobetu, nahiz Espainiako Gobernuak balentria gisa hartu erregistratutako langabeen kopurua 31 lagunetan murriztu zela abuztuan. Ez zuten aipatu Gizarte Asegurantzak ehun mila lagun inguru galdu zituela urte honetako abuztuan. Horiek bai direla benetako datu kezkagarriak.

Ikusita enplegua aurkitzea oso zaila dela, lan merkaturatzea atzeratu egiten dute gazte askok. Hor dugu gazte talde andana masterrak eta doktoregorako ikasketak egiten. Honela, beste 3-4 urte igaroko dituzte lana bilatzen hasi aurretik. Eta gero zer?

Lanpostu bikain horietakoa lortu nahi zuen Moritz Erhart-ek Londresko Merril Lynch-en behin-behineko lanpostua eman ziotenean praktikak burutzeko asmoz. Bankuko jabe aseezinei erantzuteko, hiru egun, atsedenik gabe lanean aritu ostean, etxeratu zenean dutxan hilik aurkitu zuten

Marxek aspaldi esan zigun kapitalismoak ondo funtzionatzeko, hau da, mozkin tasa oparoak kapitalistek bereganatzeko, oso garrantzitsua zela langabeen (industria) armada eratzea. Horrela, langabetuen armada honek alokairuak presiopean edukiko ditu, ahal diren apalenak izan daitezen. Guztiau gertatzen ari da gaur egun, eta sindikatuek indar gutxi daukate egoera hori ekiditeko. Eta egoera hau krisialdi garaietan areagotu egiten da. Ondorioz, gardenki ikusten dugu langileen eros ahalmena gutxitzen ari dela, baita beren partehartzea ere urteroko Barne Produktu Gordinean.

Bien bitartean, goi-mailako agintariak, bai politiko eta batik bat finantzarioak, inoiz baino aberastasun handiagoa eskuratzen ari dira. Hor goian dagoen klase agintariak osatzen du talde boteretsua ekonomia eta politika nahi duten eran kudeatzeko.

Baina nola heldu agintari klase horretara beheko maila batetik hasita? Jendartean maila aldaketak ez dira erraz ematen. Hala ere zenbait mugimendu gauzatzen ari dira, nahiz egunetik egunera zailagoa den. Zailtasun hauek salatzen ditu Joseph Stiglitzek gazte iparramerikarren aukera berdinen eza bere azkenetako liburuan (*The Price of Inequality/El precio de la desigualdad*. Taurus). Zein zaila zaien gazteei lanpostu bikainak erdiestea!

Lanpostu bikain horietakoa lortu nahi zuen Moritz Erhart-ek Londreseko Merril Lynch-en behin-behineko lanpostua eman ziotenean praktikak egiteko asmoz. Bankuko jabe aseezinei erantzuteko hiru egun atsedenik gabe lanean aritu ostean, etxeratu zenean dutxan hilik aurkitu zuten. Mutil horren amak ere zerbait pentsatuko du sistema kapitalista suntsitzaile honi buruz, ezta?

Dirudienez, honela lana egiten duten gazte asko daude. Hogeita lau ordu lanean aritu ondoren, taxiak jasotzen ditu lantokiko atarian, etxera eraman dutxatzeko eta arropa garbia janzteko, eta taxi bera han dauka zain lantokira eramateko. Honela lehertu arte. Esklabotza berria, Marxek bere zorroztasunean ikusi ez zuena. Eta ugazaba modernoentzat gazte hauek, langile garaikideok, robotak dira, dirua egiteko makinak. Gazteak bizitza eman ostean gupidaren aztarren ñimiñorik azaltzen ez dutenak dira elite boteretsu hori osatzen duten pertsonak.

Hala ere, aukera xumeagoak egon badaude lanpostu duinak ahalbidetzeko. Izan ere, ikasle gazteei zuzenduta EAEn "junior kooperatibak" abian jarri ditu Eusko Jaurlaritzak euskal unibertsitateekin, baita lanbide heziketako eskolekin. Nahiz eta, tamalez, EAJk eta PSE-EEk sinatu duten akordioan ez diren aipatu ere egiten. Zoritxarrez, akordio ospetsu hori lantzen aritu direnek kezka gehiago zeukaten azpiegitura erraldoiak zein izango diren asmatzen, gazte kualifikatuentzat sortu behar diren lanpostuetan baino. Pena da. ■

Asisko Urmeneta ✦



DANI BLANCO

Iñaki Mendiguren
ITZULTZAILEA ✦

Etxebarrieta, Pardines, Oteiza eta Egiguren

JESUS EGIGURENek bere azken liburuan, Arantzazuri buruz ari dela, hauxe dio: "Zirrara eragin zidan han esan zidatenak, hots, –Oteizak– bere maisulan ezagunena, Jesus lurrean gorpu eta halakorik gertatzen uzteagatik Ama Birjina Jainkoa madarikatzen ari denekoa, ETAk lehenengo hilketa –Pardines guardia zibilarena– egin zuen egun berean amaitu zuela, eta Oteizak esan zuela: 'Eskultura hau Pardinesi eskaintzen diot, bera da lurrean datzan Jesus, eta Ama Birjina Pardinesen ama da, halako bidegabekeriagatik Jainkoari errieta egiten ari dena'" (*Ven y Cuéntalo. El oasis vasco*).

> *Niri harridura Egigurenen adierazpenak eragin zidan, hain justu ere beti kontrakoa entzun izan dudalako*

Niri harridura Egigurenen adierazpenak eragin zidan, hain justu ere beti kontrakoa entzun izan dudalako, hau da, Arantzazun hamalau apostoluen gainean dagoen *Pietatea* Txabi Etxebarrietari eskaini ziola Oteizak 1968an. Ez dut uste honetaz zalantza handirik dagoenik (ikus Pelay Orozco: *Oteiza. Su vida, su obra, su pensamiento, su palabra,* 516. or.). Beraz, nola liteke egitate berari buruz hain bertsio kontrajarriak sortzea gure artean? Nondik atera du Egigurenek bertsio hori? Ez dut uste bera gezurretan edo asmakerietan dabilenik. Arantzazun esan diotela? Ba, ez da Arantzazun normalean ematen den azalpena. Orduan? Niri bi gogoeta sortzen dizkit istorio nahasi honek:

1. ETAren sorreratik gaur arte gertatuaren kontakizun objektibo samar bat egiteko dauden zailtasunak. Izan ere, batzuek azken urteotako ikuspegitik nahi lukete irakurri ETAren historia osoa eta konplexua; eta beste batzuk erosoago daude pentsatuz hasierako ETA hura berbera izan dela azkeneraino iritsi zaiguna.

2. Baina agian profetiko edo metaforiko samarra da Oteizak Arantzazun utzi zuen eskulturari buruzko nahasmen hau. Beharbada, Arantzazuko ama hori bien ama izango da, bai Etxebarrietarena eta bai Pardinesena, eta ez batena ala bestearena, biek (biktima guztiek) izan dituztelako ama sufritzaileak, eta guztien amak aritu direlako, ez dakit Jainkoari, baina bai politikari, agintari, eragile eta gainerako herritarroi agiraka, hemen hainbeste urtetan gertatu dena lehenago ez konpontzeagatik! Hau ulertzea lagungarri izan liteke adiskidetzeko bidean. Azkenean ez ote zuen horixe adierazi nahi izan Oteizak berak geroago 90eko hamarkadan biei, Txabiri eta Pardinesi, Tolosaldean oroigarri bana eskaini zienean? ■

DANI BLANCO

Itxaro Borda
✦
IDAZLEA

Gizon festa

EZ DUT zalantzan jarriko Alkain, Galartza, Plazaola eta Euzkitzeren dohain anitza ETB1ko ikuslegoa irriz lehertarazteko orduan, beraien *Kontrako eztarritik* emankizunarekin. Duda izipirik ez dago. Txalotzekoa da. Gainera gustatzen zait, txantxak zenbaitetan lodixkak suertatu arren, gure hizkuntzan berean entretenitu nazaten eta Artikoko haizez hanpatu nire izpiritu bete erraza kitzika diezadaten. Publiko nahikoa ona naiz.

Hogeita hamar minutuz, zaga-zaga, lau mutiko airos eta gotor, barreak nondik nora zulatuko duen asmatzen jarraitzea aski neketsua dela erantsi behar dut ordea. Bereziki pantailan emazterik ez delako agertzen. Ez ote da antzezle emerik aurkitzen herri honetan, duela lau hamarkada Zuberoako pastoraletan bezala gizonezkoak emaztez transbeztitzera behartu gabe? Ala, gizonezkoek genero bien eremua arraileriaz berdinduz, giz-arte total(itario) baten ametsa dauka euskal munduak emakumea *invisibile* eginez?

Egoeraren aldatu ezinak nau harritzen. Euskal Herriko kultura alorreko gizon-festa endogamikoa Carla Bruni Miarritzen abesten entzutea bezain *ringard* dela deritzot jadanik. ■

DANI BLANCO

Joxerra Garzia
✦ IDAZLEA

Erretiratuen sinonimatua

ORAIN ARTE, erretiroa hartzeak erretiratua erretirodun bihurtzen zintuen, hileroko diru sari baten jabe. Hori noiz arte izango den horrela, ez dago esaterik, ongizate estatua eraisteko lanean gogor diharduteeta, eskuin-ezker (badakit atzekoz aurrera dela berez esapidea, baina oraintxe gaude denok dislexia ideologikoak jota, eta apenas inork igarriko dion bi hitz horietan zeinek non behar lukeen).

Erretiroa hartu berria naizen honetan, azken treneko azken bagoia harrapatu izanaren irudipena daukat, baina nago benetako auzia ez dela ez trenaren lastertasuna ez trenbidearen zabaleroa, baizik eta gerora trenik batere ibiliko den ala ez, edo, hobeto esan, zenbati utziko zaien trenera sartzen, zenbatek egin beharko duten bidea oinez, eta zenbati ez zaien oinez ere biderik egiteko aukerarik emango.

Kontua, Humpty Dumpty nire filosofo zernahirakoak esango lukeen (edo ez lukeen) moduan, zera da: nork erabakiko duen aurrerantzean nor den nor, nor den zer, eta nor zabor. Bide batez esanda, hobe genuke zaborren ideologiaz hainbeste arduratu ordez ideologien zaborraz gehiago arduratzea.

Gauzak dauden bezala, dena da gaur hemen arazo etiko, edo hala behar luke, behintzat. Badirudi, ordea, hitzetik hortzera darabilgun "zoru etiko" hori gure gatazka antonomasikoaren esparrura mugatzen dela, hortik kanpo (eta hori baino lehenagoko) erabaki behar larririk ez balego bezala.

Nik neuk, erretiratzeko modu etikoki eta estetikoki egokia hartzen asmatu nahi nuke, eta uste baino gehiago kostatzen ari zait.

Erretiratzea, funtsean, baztertzea da (norberak nahita hala erabakitzen duenean, behintzat): plaza agerikoa utzi eta zurrunbilo publikotik bazter bizitzea. Egiten baino esaten errazagoa da, erabat bazter bizitzea ere ez baita kontua, ez behintzat gurea bezalako herri batean, garenetik izan nahi genukeenera iristeko bidean gehien-gehiena eginkizun dugula.

Baztertu bai, beraz, baina zenbat, zertatik eta nola? Hor dago koska, kontuak gutxitan izaten baitira "harresia itxi harresia ireki" kantu garai batean ezagunean aipatzen zirenak bezain zuri edo beltz.

Bolognek unibertsitatera ekarri duen formalismo zurrun, antzu eta malapartatutik aparte ibiltzea, esaterako, ez da erabakitzen zaila. Telebista eta irratietako oilotegi-tertuliei uko egitea ere, erabaki erraza da. Baina zergatik onartu ARGIAn idazteko proposamena? Ganorazko ezer esan al diezaioket nik ARGIAko irakurleari, ala banitateak harrarazi dit erabakia?

Ekainean, orain adiskide dudan aspaldiko ikasle ohi batek, etxera etorri eta sarean nor izateko behar nituen guztiak utzi zizkidan prest. Funtsean, blog bat eta twitter kontua.

Blogaren izenburua garbi neukan hasieratik: *Eza Batzen*. Batetik, erretiroa hartu baino lehenago bazter utziak batu, berreskuratu nahi nituen. Bestetik, bistatik aldentzen, neure burua ezabatzen hasteko gogoa nuen.

Dudarik gabe, ARGIAn idazten hastea ez da ezabatzen hasteko biderik egokiena, baina utzidazue, behingoz bada ere, kontraesanaren apologia egiten. Putzuan ito nahi ez badut ere, ezin dut euskalgintzaren eta herrigintzaren uretan busti gabeko bizitza irudikatu. Ez dut aparteko ekarpenik egingo, nire betiko zoroen inguruan jardungo dut, ezinbestean. Espero dut, hala ere, irakurleren bati edo besteri gustagarri gertatzea hemen plazaratuko ditudan neure zoroen inguruko jardunak.

Horrenbestean, pozik nengoke ni. Zu, berriz, balizko irakurle hori, abisatuta zaude. ■

Antton Olariaga

RUPER ORDORIKA

«Diskoan bildutako abestien egile gehienen *telonero* izan naiz inoiz»

Hertzainak, Itoiz, Oskorri, Xabier Lete, Mikel Laboa, Koska, Errobi, Delirium Tremens, Balerdi Balerdi, Txomin Artola, Kortatu eta Etxahun Iruri. Denak disko bakarrean. Taldeon abesti bana hautatu eta azukre koxkor bilakatu ditu Ruper Ordorikak.

Testua eta argazkiak
| LANDER ARRETXEA |

Hainbat euskal talde eta abeslariren kantuak moldatu dituzu *Azukre koxkorrak* diskoan biltzeko. Zer dela eta bertsioz osaturiko disko bat?

Ez naiz sekula interpretea izan, bertsio gutxi egin ditut eta are gutxiago euskal munduko abestiekin. Halare, banuen aspaldian horrelako zerbait egiteko gogoa. Jauzi bat izan da halako erabakia hartzea, baina eginkizun polita eta dibertigarria ere bai, era berean. Jatorrizko taldeek garai hartan nahi zuten hori ulertzen ahalegindu naiz. Ez dut besterik gabe abesti bat estilistikoki aldatuz bestelakotu nahi izan, baizik eta zantzu batzuk behintzat zaindu, begirunez edozein kasutan. Egia da aldaeretan hasten zarenean konparazioak sortzen direla, baina ez da hori disko honen asmoa.

Zer dute, bada, 12 abestiok Ruper Ordorikak diskoan biltzeko?

Abesti bakoitzak bere arrazoia du; ez da antologia bat. Baina, zergatik hauek eta ez beste batzuk? Ez dakit. Musikan hasi nintzeneko musikarien abestiak dira gehienbat, nire ingurukoenak. Oso harreman zuzena izan dut talde horietako batzuekin: Hertzainak, Itoiz, Mikel Laboa… Banuen, nire taldearen eta neure gaur egungo begiradatik, garai hartara urreratzeko nahia. Gogoan nituen abestiak dira, bat-batean abestu nitzakeenak.

Bestalde, ez ditut sartu oraindik batera jarraitzen duten taldeak, baina hori ere ondorio bat izan da, ez aurreikusitako zerbait. Egia esan, diskoa egin dugun bitarte honetan Balerdi, Balerdi eszenatokietara itzuli da, eta uste dut Delirium Tremensekoak ere ari dire-

"Jatorrizko taldeek garai hartan nahi zuten hori ulertzen ahalegindu naiz".

la zerbaitekin. Gainera, orduko talde berean jarraitzen ez dutenek ere musika egiten dute oraindik.

Abestiak moldatzeko, ohiko taldearen laguntza izan duzu.

Azukre koxkorrak talde lana izan da. Azken sei urteotan batera gauden laurok aritu gara horretan: Harkaitz Miner, Asier Oleaga, Lutxo Neira eta ni neu. Horrez gain, lehengo urtean Gasteizko Jazz festibalera etorri zen nire hainbat diskotan parte hartu duen Ben Morder. Aukera baliatuta, kanta batzuk egin genituen bion artean: *Ama Euskadi, Txakurren partia* eta *Ezekielen prophezia*ko soloa. Azkaraten grabatu dugu, Katarain estudioan, ohiko teknikariekin. Garrantzitsua izan da niretzat betiko taldearekin aritzea. Dena gustuko dudan bezala egin ahal izan dut, eta ondo balio du horrek.

Hertzainak taldearen *Sigarrillos Amariyos* da diskoaren lehenengo abestia. Harreman pertsonalek hautaketa baldintzatu dute?

Oso hurbileko nituen Hertzainak taldeko kideak. Josu Zabala nire lehenbiziko hiru diskoetan aritu zen, eta Txanpi herritik ezagutzen nuen; Montoia bera ere, eskolako laguna da. Gainera, maite dut kantak ñabardura handia eduki dezan, eta kanta hori garai bati buruz oso abesti gutxik egiten duten bezala mintzo da. Gasteizen bizi genuen errealitatea islatzen du. Ez nuen zalantzarik izan hautatzerakoan, nahiz eta, haiekin abestu eta ekoiztu dudanez, beste aukerarik ere bazegoen. Kantu zaila da, ez delako eredu bati jarraituz egina.

***Sarri, Sarri* abestiaren sormen prozesuan parte hartu ei zenuen.**

Nolabait bai. Ez naiz ondo akordatzen, baina badakit Fermin etorri zitzaidala behin, artean Kortatun zela. Hark ez zuen konfiantza handirik euskararekin, ikasten ari baitzen. Aholkua eskatu zidala uste dut: letra nola ahoskatu eta nola sartu letra hori berak buruan zuen ideian. Dena den, horren gainetik, izugarrizko indarra hartu zuen kantak, eta harrigarria da nire burua *Sarri, Sarri* abesten ikustea, baina banuen harremana Kortatuko kideekin. Diskoko abestiak egin zituzten musikari gehienen *teloneroa* izan naiz inoiz.

Horietariko batzuk [Lete, Laboa…] ez daude gure artean, baina haien abestiek oihartzun handia dute oraindik.

Dudarik gabe; kantari handiak dira. Duela urte eta erdi, Galiziara gonbidatu ninduten euskal poeten antologia bat argitaratu behar zela eta, haien testuekin egindako abesti batzuk kantatzeko. Horien artean ziren Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia eta Luigi Anselmi, baina baita Xabier Lete ere. Gogoan dut nire baitan pentsatu nuela, Letek berak kantatzea zatekeela onena.

"Nik egindako lehenengo lanak Ez Dok Amairurekiko haustura erradikal gisa interpretatu ziren".

Pasadizo horrek zerikusi zuzena du disko honekin: ekimen hartarako *Izarren hautsa* ontzen hasi nintzenean, taldekideei aipatu nien, eta berehala laketu ginen abestiarekin. Orduan pentsatu genuen horrelako kantuekin bilduma bat egin genezakeela.

Beraz, Ez Dok Amairu mugimenduko kantagileak eta RRV izendatutakoa bildu dituzu disko berean.

Niretzat oso gauza naturala da biak disko berean batzea. Ez nuen Ez Dok Amairu ikusterik izan, baina gero bai, banan-banan ikusi nituen kantari handi haiek. Nik egindako lehenengo lanak Ez Dok Amairurekiko haus-

tura erradikal gisa interpretatu ziren. Ziur asko banuen asmo hori, maila musikalean batez ere, eta baita lehenengo diskoa Bernardo Atxaga baten hitzekin egindakoa zelako, artean erabat ezezaguna zen. Hala ere, beti pentsatu nahi izan dut ikasi dudala zer edo zer nire aurrekoengandik. Mikel Laboa, Xabier Lete, Benito Lertxundi eta enparauak begien aurrean ikustea errebelazioa izan zen niretzat. Nire zaletasunak beste batzuk ziren, baina uste dut oso zorionekoak garela herri musika halako duintasunez landu duten musikariak izan ditugulako aurretik.

Aldi berean, nire lagunak Rock Erradikal gisa bataiatutako horretan ari ziren. Beren kontzertuen aurretik jotzen nuen maiz, eta babestu egiten ninduten, neuk egiten nuena euren munduan oso bazterreko gertatu arren. Ez dago soberan beste behin aipatzea: musikaria baino lehen musika zalea naiz. Gainera, kanta erabat primitiboa da eta aldatu egiten da bere itxura. Letek abesti bat egiten bazuen, Evaristok gauza bera egiten du, nahiz eta formalki eta estilistikoki ezberdina izan.

> **“Ez dago soberan beste behin aipatzea: musikaria baino lehen musika zalea naiz”**

Bide beretik, bada egun Euskal Herrian mugimendu gisa aipa litekeen joera musikalik?

Oro har, gero eta zailagoa da multzoka hitz egitea. Joera anitz badela ikusten dut nik, eta ona da hori. Lehen diskoetxea, irratia eta diskoa ziren musika munduaren oinarriak, baina hemen eta nonahi desegin egin da egitura hori. Ez daude joera bakar bateko diskoetxeak, ezta joera zehatz bat babesten duen hedabiderik ere. Gero, noski, afinitateak egongo dira, lagun harremanak, baina ez dakit hori zein neurritan proiektatzen den. Kanpotik begiratuta, uste dut badaudela horretarako saiakerak, Bidehuts esaterako. Baina irizpide estilistikoei jarraituz osatutako multzoa baino gehiago, ez dakit ez ote den alternatiba baten bila ari den musikari eta lagunen batura. Lehen, agian, kritikak orain baino errazago zuen jendea sailkatzea, hemen eta han. Hori esatea ere inportantea da. Askotan gure burua egurtzen dugu Euskal Herrian, baina musikan gauza bertsua gertatzen da munduan barrena ere.

33 urte dira *Hautsi da anphora* kaleratu zenuela. Zer aldatu da ordutik hona?

Musikari bezala, orduan gorabehera handitan ginen, eta orain ere bai. Aretoak aldiz, aldatu egin dira nabarmen. Gune alternatiboak eraiki beharko liratekeela uste dut orain-dik, hasi berrientzat baliagarri izango den zerbait behar delako. Lehen Rock Erradikala aipatu dugu; kontzertuak jotzeko egitura aldatu zen sasoi hartan. Gaztetxeak antzoki bilakatu ziren, eta sare handi bat zegoen. Hortik zuzenean herriko jaietara igarotzen zinen gero. Nire esperientzian, herriko jaiak erabat geldirik daude. Gaur egungo baldintzak ez dira duela hogei urtekoak bezain onak. Aldiz, antzoki eta aretoetan ikaragarri aurreratu da, baina egungo egitura ez da egokia talde hasiberrientzat.

Eta publikoaren jarrera?

Aldatu egin da hori ere. Gaztetxoa nintzela, Benito Lertxundi etorri zen Oñatira, gaur egun Madonna etorriko balitz bezala izan zen; herri guztiak ikusi nahi zuen Benito. Gaur egun musika oso eskuragarri bihurtu da, eta orduan baino gehiago kontsumitzen da, baina beste era batera. Askok aipatzen dute: “diskoa behera doa, baina zuzenekoak izango dira salbazioa”. Bada, oro har, ez dut uste halakorik gertatuko denik. Dena den, gero eta gehiago kostatzen zait orokorki hitz egitea. Gure egoera inoiz baino hobea dela sentitzen dugu musikari batzuek, eta beste batzuek ez dute biderik aurkitzen, baina hori beti izan da horrela, eta oso zaila da zergatiak jakitea.

Atsegin duzu beste talde batzuek zure kantuak interpretatzea?

Bai, noski. Ez dut ezagutzen musikaririk hori gustuko ez duenik. Disko hau egiteko hitz egin ahal izan dut aspaldian hitz egin gabeko jendearekin, eta denekin sentitu dut gauza bera. Horretarako balio du musikak.

Abesti guztiak bertsioak izaki, diskoak harrera ona izango duela uste duzu?

Jendeak entzuten dituenean egiten dira diskoak borobil. Ordura arte amorfoak dira, areago kasu honetan. Inoiz ez da jakiten, baina norberak ondutako kantak direnean, errazagoa da. Disko honetarako beste kanta batzuk egin nitzakeen, eta egindakoak ere beste era batera. Baina sentsazio ona dut. Zaila baina polita izan da ideia; uste ez bezala hurbildu natzaio nire barruan zegoen atal bati.

Nola egokituko duzu lan berria zuzenekoetara?

Galdera ona da hori. Oraindik ez dakit nola egin. Normalean diskoak aurkezten dituzu eta horiek jende aurrera eraman, baina orain ez da berdin. Errepertorio osoa aldatuko dugu, baina ez dakit horretan disko honek aginduko duen edo ez. Hilabete honen amaieran hasiko gara bizpahiru emanaldirekin, Iturenen eta Mirafuentesen, eta gero, aurrerago, hiriburuetan: Bilbon, Gasteizen, Donostian… ■

"Zaila baina polita izan da ideia; uste ez bezala hurbildu natzaio nire barruan zegoen atal bati".

ZULOAK

Zarataren Erreginek agur esan dute

Irailaren 27an, Zuloak taldeak bere azken kontzertua eskaini zuen Donostiako Gazteszenan. Urtebete joan da Fermin Muguruzak zuzendutako izen bereko filma aurkeztu zenetik. Gauza asko gertatu da geroztik: filma aurkeztuz batera 64 kontzertu eman dituzte munduan barrena, Amerikan, Europan eta Asian. Haiek utzitako "zuloa" bete beharra dago orain.

| MYRIAM GARZIA |

JAUN-ANDREOK, zuekin Zarataren Erreginak. Horrela aurkeztu zituzten Runaways taldeko kideak, Japoniara heldu zirenean, 1977an. Cherie Currie abeslariak 18 urte zituen, eta Joan Jett gitarra-jotzaileak 19. *Queens of Noise* haien abestietako bat da, *Cherri Bomb* eta *Born to be bad* abestiak irrati formuletan etengabe aditzen ziren garaikoa.

Zuloak taldeak kontzertu berezia eskaini zuen irailean, Bilboko Arteria antzokian, Izar and Star Herri Irratiak antolatutako kontzertu-sorta medio. Zuloakeko neskek Runaways talde mitikoaren abestiak bertsiotu zituzten orduko hartan, irailaren 27ko azken kontzertuan bezala. *Cherri bomb* edo Joan Jetten *I Love Rock and roll* ezin hobeto hartu zituen publikoak. Baina talde bien artean ez dago parekotasunik, nahiz eta biak emakume gazteez osatuta egon. Egun XXI. mendean gaude eta Zuloak ez dira euskal Runaways-ak, Kalifornian 70eko hamarkadan emakume nerabez osaturiko taldea. Zuloakekoak ere gazteak dira, bai, Ainhoa Unzuetak 19 urte zituen filma grabatu zenean. Zuloak taldeak iraultza txiki bat eragin du euskal musika eszenan. Haiek agertu arte, ez zegoen horrelakorik eta hemendik aurrera zaila izango da antzeko beste ezer ikustea. Jarrera, probokazioa, harrotasuna, kulero gorriak erakusteko lotsagabekeria, emakumeek gogor astindutako musika tresnak...

Kim Fowley ekoizle amerikarrak sortu zuen Runaways taldea 1975ean, Fermin Muguruzak Zuloak 2012an. Ohikoa dira musika industrian antzeko esperimentuak. Handik eta hemendik hartutako emakume musikariak batu eta laborategiko talde bat sortu, batez ere negozio ona izan direlako beti emakumez osatutako taldeak. Berritasuna nagusi.

Zuloak taldearen kasua ere horixe izan da, zenbait taldetatik propio erakarritako musikariak baitira: Tania de Sousa The Dispositives taldeko abeslaria da, Ainhoa Unzueta Itzalen taldean aritzen zen gitarra-jotzaile, Naiara Goikoetxea The Sfinters taldeko bateria da, Usua de la Fuente Ursula Strong Las Culebras taldeko bateria zen, eta Izaskun Muruaga Lights of Eden taldeko abeslaria. Denak ezagunak egun, Zuloak taldeko partaide izateagatik.

"Ni ere Zuloak izan nintekeen" aldarrizkatzen du Vulpes-eko abeslariak Zuloak filman. Emakume asko izan baitira Zuloak azken urte honetan. Izan ere, Fermin Muguruzak zuzendutako filmak gorazarre egiten die euskal emakumezko musikariei: Anari, Aiora Renteria (Zea Mays), Marieder Iriart (The Sparteens), Maite Arroitajauregi (Mursego), Aida Torres (Jupiter Jon), Afrika... Euskal Herriko hainbat emakumeri egin dio elkarrizketa Arrate Rodriguezek, Zuloak-en muinaren sortzaileak, bere kamera aldean. Filmean ageri diren protagonista gehienak emakumezko musikariak dira. Ez da ohiko gauza, eszenatokietan, albistegietan edota musikako hainbat arlotan ari direnak gizonezkoak izaten baitira ia beti. Kafe Antzokiko Jota teknikariak filmean aipatzen duen

moduan, areto honetako eszenatokitik igarotzen diren musikarien %95 gizonezkoak dira. Film honetan aldiz, ageri diren musikarien %95 emakumezkoak dira.

Uste baino emakume gehiago euskal rockean

Alemania, Mexiko, Argentina, Lituania, Kuba, Polonia eta Japonia, besteak beste, izan dira Zuloak taldeak egindako biran helmuga. Filma Donostiako Zinemaldian aurkeztu eta gero, Tania de Sousa (ahotsa), Ainhoa Unzueta (gitarra) eta Usua de la Fuente (bateria) izan dira Zuloak, bira handi eta luze honetan.

Bestalde, bakoitzak bere proiektuekin jarraitu dute Zuloakeko neskek. Taniak eta bere taldeak, The Dispositives, disko berria argitaratu dute. Usuak eta Koldo Soret-ek (Surfin Kaos), Niña Coyote y Chico Tornado taldea sortu dute. Irailaren 27an Gazteszenan ikusi genuenez, bolumena eta indarra dira nagusi proiektu berri honetan.

Japoniatik bueltan harrapatu dugu Ainhoa Unzueta, Zuloak taldeko gitarra-jotzailea. Egun 21 urte ditu, baina 14 urte zituela hartu zuen gitarra elektrikoa lehen aldiz, gitarra klasikoko ikasketak egin ostean. Gaztea da, bai, baina urteak daramatza gitarra jotzen. Zuloak proiektua alde batera utzita, ikasteari, konposatzeari ekin dio Ainhoak. Hainbat proiektu ditu. "Asko ikasi dugu, egia da, baina aurrera begira gaude. Proiektu baten amaiera da, baina honek beste hainbat proiektu sortu eta indartu ditu". Bi urteren buruan bere diskoa egin nahi luke. "Izugarrizko esperientzia izan da bira, oso ondo hartu gaituzte leku guztietan".

Ikasi beharreko ia guztia dagoeneko ikasi ote duen galdetu diogu: "Oraindik hainbat gauza dago egiteke, gauzek bere denbora behar dute". Hala da, rock and rollak Zuloak ekarri zuen, ekarriko ditu beste hainbat gauza ere. Hil dira Zuloak! Gora Zuloak! ■

EGIZU HARPIDETZA
EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan kobratu
SEILORIK EZ

argia
1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

TOLESTU

ZELO-PAPERA HEMEN TIPINI

Helduen Literatura | POESIA

Amaren heriotzak libreago egin ninduen
Mari Luz Esteban
Pamiela, 2013

Modeloen kontra

KONTATU DIGUTE hauskortasuna eta zaurgarritasuna tresnatzat darabiltzala Mari Luz Estebanek liburu honetan, maitasunaren eta askatasunaren arteko talkak zaizkiola interesatzen, odola hortik ateratzen zaigula dariola maiz. Eta egia da. Baina irakurlea liluratzen duena ez da sentimenduen mugak esploratzeko gaitasuna bakarrik, ezpada estiloa bera: neurritsua, orekatua, hunkigarria… eta gogorra da: "Baina/ aitor dut/ amaren heriotzak libreago egin ninduen/ berrasmatu ahal izateko ibilbide propioa/ besterik ote bizitza?/ saminaren saminenean/ oi paradoxen barne-indarra!/ bigarren aldiz jaiotzeko ahalbidea/ oparitu zidan". Liburua irakurri behar da osorik hitzok gordetzen duten maitasun eta koherentzia ulertzeko.

Emakume ahots ederrarekin kontraesanak bere gain hartu ditu idazleak, eta poesiaren zelaietara eroanez astindu ditu, gogoratu ditu, madarikatu ditu. Bizizalea da gehien-gehienean liburua, baina gorputzari eta bizitza ospatzeari besteko tartea egiten zaio kontzientzia kritikoari. Finean emakumearen irudi tradizionalari kontra egiten dio, desafiatu egiten du normala dena. Ahaztu beraz besteen arabera baino bizi ez den emakumea, ahaztu bere kabuz eta beretzat ezer egin ez dezakeena. Emakume helduaren ahots dardarati sendoa entzun gura baduzu hipokrisiaren erdian, eta berdintasun formalaren paradisu barrotedunetik atera nahi baduzu, hau zuretzako moduko liburua da. Oier Guillanek aldizkari honetan bertan esan zuen ederto eztabaidak agerian jartzen dituen liburua dela, "batzuoi ezohikoak zaizkigun moduak" azaleratzen dituena. Analisi literario burutsuekin baino, hobe da bihotzarekin hurreratzea idazlearen jardunera, bizitzaren beraren kontakizun idealizatu honetara.

Bere horretan da plazera *Amaren heriotzak libreago egin ninduen* irakurtzea. Eternitatea une batean kondentsatua dator batzuetan. Beste batzuetan denbora pasatzen da astiro, eta atzera begiratzean konturatzen gara hegaz egin duela, inozentzia deseginez: "Han izan naiz Domu Santu bezperan,/ hiru urte nitueneko paradisu albo-alboan". Hizkuntza lau eta narratiboa darabil Mari Luz Estebanek, baina irakurlea gustura ibiliko dela deritzot halako giro etereo bat ere sortzen duelako, zetazko oihal eta berba arinena, sinbolismoz beteriko adibideetan: "Agian arrazoi zuen adiskide hark/ neu eta neure gertukoen artean/ ehundu dudan errezel mehe-ikusezinaz/ hitz egiten didanean". Terriblea baita titulua, ederra eta leuna ostera kantua. ■

Igor Estankona

Verdiren *Giovanna d'Arco*

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. **Zuzendaria:** Yves Abel. Bilboko Operaren Abesbatza. **Zuzendaria:** Boris Dujin. **Eszenografia:** Alessandro Camera. **Bakarlariak:** Krassimira Stoyanova (sopranoa), Alejandro Roy (tenorea), Claudio Sgura (baritonoa). **Lekua:** Euskalduna Jauregia. **Data:** irailaren 21a.

ABAOren denboraldi berria

EUSKAL HERRIKO operazaleok urtero espero dugun momentua iritsi da, ABAOren denboraldiaren estreinaldia, hain zuzen ere. 62. urteurrena ospatzen duen elkarte kutural honek, hain errotuta gure musikazaleen artean, mantentzen ditu bere ilusioa eta indarra, nahiz eta krisiaren ondorioak sufritu. Instituzio publikoen dirulaguntzak ia-ia pikutara joan dira, baina urtean barrena eskaintzen diren zazpi tituluak hortxe ditugu aurten ere. Eskertzen da ABAOtik egiten den ahalegina, kontuan hartuta zein aukera gutxi ditugun operaz disfrutatzeko. Beraz, segi aurrera!

Denboraldi atsegina eta nahiko osoa espero dugu, nahiz eta pittin bat erraza ere baden. Erraza, ausardia pixka bat falta izan zaielako hain ezagunak ez diren lanak aurkezteko edo benetako musika garaikidea programatzeko. XX. mendeko opera bat entzungo dugu: *Adriana Lecouvreur*, Francesco Cilearena, baina, 1902. urtean estreinatutako opera hau ezin da lan apurtzailetzat hartu. Halere, esan bezala, titulu ederrak izango ditugu: Belliniren *I Puritani*, Bizet-en *Carmen* eta Puccini-ren *Turandot*.

Bestalde, Verdik protagonismo berezia izango du aurten: alde batetik, konpositorearen jaiotzaren 200. urteurrena ospatzen delako, eta, bestetik, ABAOren *Tutto Verdi* izeneko proiektuak, orain dela zortzi urte hasitakoak, bere ibilbidea jarraitzen duelako. Gauzak horrela, Verdiren hiru lan programatu dira: gaztetan egindako *Giovanna d'Arco*, *Rigoletto*, hain ezaguna den maisulana, eta zahartzaroan egindako *La forza del destino* obra.

Denboraldiaren lehenengo titulua *Giovanna d'Arco* izan da. Gazi-gozoa. Ez da Verdiren lan distiratsuena, baina badu maisuaren tankera melodiko berezia, eta pertsonaiak ondo diseinatuta daude. Schiller-en *Die Jungfrau von Orleans* (Orleanseko neskatoa) nobelan oinarritzen den libretoan pertsonaiaren alde heroikoa eta irudi erromantikoa nahasten dira istorio interesgarria garatuz. Emanaldiaren onena: eszenografia, Alessandro Camerarena; argiztapen zoragarria, Andrea Borellirena, eta Euskadiko Orkestraren aktuazioa, Yves Abel zuzendariaren batutapean, beti fina, doia, ahotsak ongi nabarmentzen direla.

Protagonistak izen ziren huts egin zigutenak, nolabait. Krassimira Stoyanova soprano bulgariarrak, Giovannaren rolean, ahots fina eta malgua luzitu zuen, baina ez zuen adierazi pertsonaiak behar duen adorea, planoa gertatu baitzen bere interpretazioa. Nortasuna handiagoa erakutsi zuen Alejandro Roy tenore asturiarrak. Sinesgarria izan zen bere interpretazioa Carlo VII. erregearen paperean, eta posibilitate handiko ahotsa erakutsi zuen. Baina guztien artean, nire ustez, Claudio Sgura baritono italiarraren interpretazioa izan zen onena. Ahots segurua du abeslariak, eta aldi berean adierazkorra eta ñabarduraz betea. Gure artean aritu den lehenengo aldia zuen, eta espero dugu gehiagotan entzutea. ■

Montserrat Auzmendi del Solar

Hitz gezidunak



Kike Amonarrizen umorea

Unitate txikienak

– Zein da distantzia neurtzeko unitaterik txikiena? Milimetroa.

– Zein da likidoak neurtzeko unitaterik txikiena? Mililitroa.

– Eta zein da inteligentzia neurtzeko unitaterik txikiena? Militarra.

Soluzioa

L	E	Z	A	E	T	A		T	O	N	I	A	K	
	T	E	Z	N	A	P	E	T	E	R	A		U	
U	Z	T	E	A	N	R	R	E		T	Z	U	N	A
	A	R	T	E	R	R	A	N	K	E	R	A		
U	H	A	R	R	A		E	R	O	S		T	X	O
	A			E	R	K	I	A	N		B	E	A	N
						A	L	T	A					
					O	L	A		B	A	L	I		
						I	L	A		O	I	A		
							B	A	L	I	A			
	I	S	A		U	Z	A		M	A	I			
		N	T	S	O	L	U			I	E			
A	N	T	O	L	O	T	A	Z		N				
	O			B			A							

Marabilli, kultura eta festa lagunartean

LAGUN GIROAN, pasioak eta kultur zaletasunak bultzatuta sorturiko jaialdiak interesgarria behar du derrigor. 2011n hil zen Aitzol Aramaio zine zuzendari ondarrutarra, eta haren omenez, herrikide eta betiko lagunek Marabilli sormen festibala antolatu zuten iaz lehen aldiz, Aitzolek zuen "artearekiko maitasuna, baikortasuna eta bizizaletasuna" islatzeko asmoa duen festibala. Bigarren edizioa izango du aurten jaialdiak, urriaren 10etik 13ra Ondarroan, eta *Txokolate apur bat* filmaren zuzendariari omenaldi ekitaldia egiteaz gain, kultur esparru ugaritako obrak eta sortzaileak biltzea lortu dute. Dantza izango da, arte erakusketak, kale antzerkia, argazkilaritza... eta bertan izango dira, besteak beste, Oier Lertxundi, Unai Iturriaga, Garazi Etxaburu, Ismael Iglesias, Bide Ertzean, Bingen Mendizabal, Rafa Rueda edota Kiko Veneno.

Aramaio gogoan duen jaialdiak, nola ez, toki berezia egingo dio zazpigarren arteari. Zine zuzendariak, aktoreak eta kritikariak gerturatuko dira, sormenaz eta zinemaz solastatzera, hala nola Jon Garaño, Jose Mari Goenaga, Nagore Aranburu, Fernando León de Aranoa, Asier Altuna eta Koldo Almandoz. Bestetik, pantaila handian ikusi ahal izango ditugu gerrako haurrei buruzko *Agur esatea* dokumentala, Iñaki Otxoa de Olza mendizaleari buruzko *Pura vida,* eta euskal zinemagintzan aitzindari dugun *Amalur* (Fernando Larruquertek berak aurkeztua). Eta horiekin batera, *#ResistOndarru, Zubi herria harrizko irria* lanaren estreinaldia, eta oraindik zinema aretoetan dagoen *Amaren eskuak*.

Izenburu bereko liburuaren egile Karmele Jaio, pelikulan parte hartzen duen Loli Astoreka aktorea eta Mireia Gabilondo filmaren zuzendaria arduratuko dira *Amaren eskuak* aurkezteaz. *Barrura begiratzeko leihoak* obran istorio hunkigarria eta indartsua zuzendu ostean, Jaioren liburua egokitu du oraingoan Gabilondo bergararrak. Burua galtzen hasi dela-eta ama ospitalera eraman dutenean desegin da Nereak daraman bizimoduaren oreka hauskorra: bikote harremana, alaba, lana eta orain ama zaindu beharra gehiegi da pertsona bakarrarentzat. Hala abiatzen da *Amaren eskuak*. Beteta zegoen edalontziak gainezka egin ostean, bi baino ez dira aukerak: etsi edo aurrera indartsuago ekin. Kutsu melodramatikoa duen film gorabeheratsua izan arren, pelikulak gai interesgarriak jartzen ditu mahai gainean: zaintza (kasu honetan, ospitalean dagoen amarena), gehienetan emakumeen esku; familia eta lana uztartzeko borroka; eguneroko zurrunbiloan norbere burua aurkitzeko zailtasunak; edota familia barneko rol, harreman eta ardurak.

Jaialdiaren kartela, Aitzol Aramaio, eta *Amaren eskuak* filmeko fotograma bat.

Aipatzekoa da aurten egin den euskarazko fikziozko film luze bakarra dela hau. Duela bi urte eskas, euskal zinemagintzaren oparotasunaz mintzo ginen ARGIAn bertan, *Arriya*, *Urte berri on, amona!*, *Bertsolari*, *Bi anai*, *Azken bidaia* eta *Gartxot* aipagai. Krisiak krisi, esanguratsua da aurtengo lehortea, eta zer pentsatua ematen du.

Mikel Garcia Idiakez

Siestak ume txikien memoria hobetzen du

GURE JENDARTEAN jakina da umeek adin batera arte siesta egiteko joera dutela, eta bost edo sei urtetik aurrera joera hori txikitu egiten dela ia desagertu arte.

Massachusettseko Unibertsitatean, Rebecca Spencer ikerlariak zuzendutako ikertaldea haurreskolan dauden umeengan siestak izan ditzakeen abantailak aztertzen ari da. Irailaren 23an *PNAS* aldizkarian argitara emandako artikuluan, siestak memoria indartzen duela adierazi zuten.

MASSACHUSETTSEKO UNIBERTSITATEA

Ikerketan parte hartu duten haurretako bat.

Ikerlariek egun eta erdiko proba egin zuten 40 umerekin. Lehen eguneko goizean ume guztiak memoria joko batean aritu ziren, eta arratsaldean ume horietako batzuek siesta egin zuten eta beste batzuek ez. Ondoren, goizeko joko berberean aritu ziren, eta siesta egin zutenen emaitzak %10 hobeak izan ziren. Halaber, ikerlariek aztertu nahi izan zuten ea gaueko loak arratsaldeko datuak aldatuko zituen. Hurrengo goizean portzentajeak aldatu ez zirela ikusi zutenean, argi geratu zen siestaren garrantzia. ■

Dantzariek zorabioa kontrolatzen ikasten dute

DAVID R. TRIBBLE-CC BY SA

BALETEAN edo izotzaren gaineko patinajean aritzen direnak gutxitan erortzen dira biraka egin ondoren. Aldiz, gutako edozeinek –baldin eta dantzari edo patinatzaileak ez bagara–, bira gutxi batzuk emanda lurrera eroriko ginateke ziurren. Nolatan?

Barneko belarrian dugun likidoa biratzen hasten da guk biratzen dugunean, eta gu gelditzean likidoak biratzen segitzen du, inertziagatik. Beraz, garunak biraketaren seinalea jasotzen segitzen du, eta gu horretan aritzea espero duenez, zorabioa sumatzen dugu gelditzean.

Esandakoa gertaera naturala da, baina artistek, praktikaren poderioz, garunari irakatsi diote belarri barneko likidoaren mugimenduari kasu ez egiten. Hala, biratu ala ez, garunak ez du igortzen zorabioa eragiten duen seinalerik. ■

Pirinioetako hartzen zailtasunak

Aspaldiko elurterik handienak bota ditu aurtengo neguan Pirinioetan, eta udaberrian eguraldia ez da gehiegi hobetu. Hartzek ondorioak jasan dituzte: ekainean, hartz-kume bat hil zen, erreka bat zeharkatu nahian. Hala ere, hartzei aipatutakoek baino kalte handiagoa egiten die gizakien jarrerak.

ttiki.com/55478
(Euskaraz)

XIX. mendeko kedarrak, Alpeetako glaziarrak txikitzearen erantzule

1860ko hamarkadatik aurrera nabaritu zen glaziar alpetarren urtzea. NASAko ikerlari talde baten arabera, atmosferara igorritako kedar industriala izan daiteke gertaera horren arrazoia. Berresten bada, aurkikuntzak amaiera emango dio aspaldiko eztabaida zientifiko bati.

ttiki.com/55479
(Gaztelaniaz)

Erresuma Batuko Ikean eguzki-panelak salgai

Txinan ekoitzitako panelak publiko zabalari eskainiko zaizkio Erresuma Batuan, 6.800 euroko prezioan. Eguzki panelak prezio egokian gizarteratzeko saiakera egin nahi du Ikeak eta emaitzen arabera gainerako estatuetara zabalduko dute ala ez.

ttiki.com/55480
(Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak multimedia aholkularitza edukiak

iametza interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

| JAKOBA ERREKONDO |
mandio@zerain.com

Lizarra litxarrerietan

Gorbeiako Parke Naturalean gora, hegoaldera, Badaio eta Arrato mendietan baino ez da bizi Euskal Herrian *Fraxinus ornus*, mana lizarra edo lizar loreduna. Aspaldian Araba aldera joan gabea, eta egin beharko dut bueltaxka bat lizar hau ezagutzeko aitzakiarekin. Aitzakia ez, arrazoia. Badu eta. Begira.

Azalean egindako ebakietatik isurtzen duen izerdia gozo-gozoa du. Bere horretan edan daiteke. Utziz gero azukrea hartzitu egiten da, eta alkohol bihurtu. Azukrea manosa da, eta alkohola manitola. Sagar edo mahats muztioarekin gertatzen den bezalatsu. Baten batek egiten badu, gustura dastatuko nuke.

Osasungintzan dagoenerako usu erabiltzen bada ere, etorkizun oparoa omen du; makina bat ikerketako gai dute. Jakietan ere maiz topatuko duzu E421 ezizenean ezkutatuta. Medikuek gorputzeko organoen egiturari eutsi eta ez idortzeko, baita libratzeko ere, gomendatzen dute. Jakietan antzera: horiek lehortu eta zimurtu gabe mantentzeko darabilte. Adibidez, lehortutako fruituetan. Litxarrerietan ere lepo dabil. Gozokiak erakargarri garbi-distiratsu, leun eta lehor manitolaz, baita hezetasuna %98an bada ere. Okindegietako eta gozotegietako produktu ugari puzten du. Horiek denak

Juan Antonio Capó-CC by

Oso litekeena da hauetan E421, lizar loredunetik datorren manitola, egotea.

jaten dituenaren hesteak ere bai, putz eta puzker, libratzeraino.

Lizar loredunetik ateratzen zena, gerora landare askotatik sortzen da, baita sintesi kimikoaren eta biologikoaren bidez ere. Industria kimikoan beste azukre batzuetatik abiatuta egiten dute. Naturan, bakterio, onddo, legamia, alga, liken eta landareetan badago ere, algetatik sortzen da gehienbat. Horien isurkinak %20 besterik ez du manitoletik, eta platanoarenak (*Platanus sp.*) %90, baina haiena askoz merkeagoa da.

Drogak urardotzeko nahasgai ezaguna da. Kokaina, heroina, metanfetaminak. Horretarako erabiltzen denean, argotean "haurren libragarria" deitzen zaio. Zenbaitek haluzinaziorako bidean arindu ederra hartuko du. Dosiaren arabera, medikuntzan ere heste-aringarria da. Aiutaren beharrik ez.

Negutegietan, hidroponikoan eta antzeko landare ekoizpen industrialetan, berriz, izozteengatik edota gatz ongarriengatik gerta daitekeen xok edo estres osmotikoa kontrolatzeko erabiltzen dute manitola eta, hala, ura baliatzen dutenean kalterik ez izateko. Bai lurrari edo landareari berari emanez. Kontuz, barazki leun-distiratsuekin. Barazki eta fruitu itsusiak jan. ■

Einsteinen matxismoa ez zen erlatiboa

AP

Mileva Maric (1875-1948) eta Albert Einstein (1879-1955). 1903an ezkondu ziren, eta 1914an banandu, dibortzioa bost urte geroago sinatu arren.

ZURICH, 1913. Max Planckek eta Walther Nernstek Kaiser Wilhelm Fisika Institutuko zuzendaritza onar zezan eta, beraz, Berlinera joan zedin eskatu zioten Albert Einsteini. Einsteinek baiezkoa eman zuen, baina Mileva Maric emazteak ez zuen berria gogo onez hartu. Ordurako haien arteko harremana hondoa jotzetik gertu zegoen, eta urtebete zen Einsteinek Elsa Lowenthal lehengusinarekin, haren bigarren emazte izango zenarekin, postazko harreman estua abiatu zuela.

Einsteinek eta Maricek 1896ko udazkenean ezagutu zuten elkar, biek Zuricheko eskola politeknikoan fisika eta matematika irakasteko diploman izena eman zutenean. Diplomaren erdi mailako azterketetan emaitza bikainak lortu zituen ikastaroko emakume bakarrak: matematikan Einsteinek nota hobea jaso zuen (5,7 1 eta 6 bitarteko eskalan) Maricek baino (5,05). Baina fisikan emaitza bera lortu zuten (5,5).

Mileva Maricen etorkizun handiko karrera akademikoa 1901ean eten zen, Einsteinek haurdun utzi zuenean. Lieserl alaba 1902an jaio zen, baina Einsteinen paperek ez dute argitzen haurrarekin zer gertatu zen: 1903ko uda amaieran hil zen ziurrenik, baina litekeena da bikote ezkongabeak haurra adopzioan ematea. Urte hartan ezkondu ziren Einstein eta Maric, eta beste bi seme izan zituzten.

Ezkondu eta hamar urtera, Berlinera aldatu zirenean, bikotea hautsita zegoen, baina, beste askotan bezala, elkarrekin jarraitzea erabaki zuten haurren mesedetan. Horretarako, Einsteinek baldintza sorta harrigarria ezarri zion emazteari:

"1. Hau guztia bermatuko duzu:

– Nire arropa eta etxekoa egoera onean izango duzu.

– Egunean hiru otordu zerbitzatuko dizkidazu nire logelan.

– Nire logela eta bulegoa garbituko dituzu eta lan mahaia nik soilik erabiliko dudala argi izan behar duzu.

2. Ez duzu nirekin inolako harreman pertsonalik izango, arrazoi sozialek ezinbesteko bihurtzen duten artean. Zehazki:

– Ez zara etxean nire ondoan eseriko.

– Ez dugu elkarrekin paseatu edo bidaiatuko.

3. Ondorengoak aintzat hartuko dituzu:

– Ez dugu harreman intimorik izango, eta ez didazu ezer aurpegiratuko.

– Hitz egiteari utziko diozu nik eskatuz gero.

– Nire gelatik edo bulegotik alde egingo duzu berehala, protestarik gabe, nik eskatuz gero.

– Ez nauzu gutxietsiko semeen aurrean, ez hitzen ez ekintzen bidez."

Hasieran baldintzak onartu arren, 1914ko udan banandu ziren behin betiko, eta Maric Zurichera itzuli zen bi semeekin batera. 1919ko San Valentin egunean dibortziatu ziren bera eta Albert Einstein. ■

Arrastoak

Van Goghek obra bat baino gehiago saldu zuen bizirik zela

VINCENT VAN GOGHEK (1853-1890) artelan bakarra saldu zuen hil baino lehen. Mito ezaguna eta arrakastarik eza justifikatzeko aitzakia oso erabilia da, baina ez da guztiz zuzena.

Egia da Van Goghek olio bakarra saldu zuela bizi zen artean. Hil baino hilabete batzuk lehenago, *Mahasti gorria Arlesetik gertu* (1888) koadroa saldu zion Anna Blog izeneko margolari belgikarrari, 400 liberaren truke.

Saldutako koadro bakarra hura izan arren, dakigunez, gutxienez beste hamalau lanen ordainetan dirua jaso zuen margolari holandarrak. Zehazki, artzain protestante batek bi marrazki erosi zizkion 1879an eta, hiru urte geroago, 1882an, lumaz egindako hamabi marrazki egin eta kobratu zituen, enkargu bat medio.

Hala ere, nahiz eta mitoa egia ez izan, badu zentzua, arte enkanteetan preziorik altuenak lortzen dituzten obren egilea miseria gorrian bizi eta hil baitzen. ■

PUSHKIN MUSEOA

Mahasti gorria Arlesetik gertu (1888) bizirik zela Van Goghek saldutako olio bakarra da, baina ez artelan bakarra, gutxienez beste hamalau obra saldu baitzituen hil baino lehen.





dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 130 dokumental eskura

Anuken egia
Arrhash, pozoina
Banlieues. Pariseko erreboltak
Basque hotel
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
CAN: Kutxa hutsa
Companys eta Agirre azken erbesterantz
Debekatuta dago oroitzea
Egunero
Egunkaria, hamar urte geroago
Elburua Gernika
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Gudari baten egunerokoa
Haizea eta sustraiak
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparraldea XXI
Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Nire bizi osoa espetxean
Nömadak Tx
Oroitarria
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathon
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook/dokumentalak

argia.com

EGUZKI BIDEOAK *elkarlanean*

ORREAGA

«Autodeterminazio eskubidea edukiz hustu eta kontrakoa saltzen ari dira batzuk»

Naroa Anabitarte biokimikaria da (Tolosa, 1979) eta Mikel Erauskin ekonomialaria (Zarautz, 1980). Orreagako kideak dira. Talde honetako hainbat kidek parte hartu du *Munich 1962 Isildu egia* dokumentalean, aurki ikusgai izango dena. Gertakari historiko hura gogoratuz abiatu dugu solasa, talde honen "Independentzia da demokraziaren abiapuntua" lema hizpide amaitzeko.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco

Munich 1962 Isildu egia bideoa burutu duzue berriki. Zer dela eta?

Naroa Anabitarte: Dokumentalaren ideiaren oinarrian lan talde bat dago. Konturatu gara historiako gertakari hori ez dela ezaguna gure belaunaldikoentzat. Aldi berean, kontatzen dugunak paralelismoa dauka gaurko egoera politikoarekin. Municheko Ituna ezagutu zuten batzuk bizirik daude eta euren esperientzia eta interpretazioa jaso ditugu Larraitz Ariznabarretak eta biok, besteren artean.

Mikel Erauskin: Munichen gertatuak beharbada ez dauka garrantzia berezirik, sinbolikoki bai, ordea. 1936ko gerra galdu ondorenetik gentozen eta herriari traizioa egin zitzaion. Hau da, nahiz bederatzi hilabetez soilik izan eta lurraldez mugatua estatu bat izan genuen eta galdu. Pixkanaka uko egin zitzaion, eta gero, itunarekin etsitze horren baiezpena zertu zen. Espainiako Estatuan integratzea onartu zen baldintza oso eskasen truke. "Marko demokratikoa bilatu behar dela eta berean erkidego naturalak errespetatuko direla" dio itunak.



"Behin-behineko estrategia behar dugu independentzia lortu arte" esan digute Naroa Anabitartek eta Mikel Erauskinek.

Herri honek 500 urte estrategiarik gabe daramala esan ohi duzue, eta

halaber politikan aro berria bizi dugula diotenenekin kritikoak zarete.

M. Erauskin: "500 urte estrategiarik gabe" diogu, izan ere, Nafarroa Garaiaren konkistaren bosgarren mendearen urteurrena zela eta, alderdi abertzale eta talde politiko guztiek hori gogoratu genuen. Denok konkistatuak izan garela diogu, alderdi horiek baina, biharamunean bakeaz, normalkuntza politikoaz eta demokraziaz hitz eginez jarraitu zuten, amaitu gabeko okupazio egoera bizi dugularik. Sekulako kontraesanak ikusten ditugu alderdi horien jardueran. Gure ustez ez dago aro berririk, noski.

> **"Posibilismoa, batzuek ezarri eta askok onartu dituzten instituzio horietan funtzionatzeari deitu ohi zaio. Noski, gu ez gara bide horretan ari"**
>
> Naroa Anabitarte

N. Anabitarte: Bestera esanda, alderdi horietako batzuek [EAJ] frankismoaren ondoren demokraziarako trantsizioa izan zela diote , eta orain, funtsezko indar harremanak aldatu gabe, denak bigarren trantsizioa deitzen duten horretan ari omen dira [ezker abertzalea].

Herri hau menperatua, zapaldua okupatua, eta mentalki asimilatua dagoela diozue. Nola aldatu daiteke herri honen joera politikoa?

M. Erauskin: Kontzeptu pila aipatu duzu. Denak nahastuta azaldu ohi dira eta zentzu anitz ematen zaio hitz bakoitzari. Zentzu horretan herri honi ideologia propioa falta zaio, bertako ikuspegitik sortua. Beti elikatu gara kanpoko iturrietatik eta horrela jarraitzen dugu. Espainiako eta Frantziako estatuek termino horiek ukatzeaz gainera, Euskal Herria ukatzen dute. Sinestarazi digute termino horiek ez direla benetakoak. Alderdi abertzale zenbaitek kontzeptu horiei uko egin ez arren, menperatuak edota okupatuak gaudela diote, baina, praktikan ez dira horien aurka ari. Antza, kontzeptu horiek ez dauzkate benetan argi, euren praktika politikoek kontraesan larriak agertzen baitituzte.

Politika baina, posibilismoaren esparruan egiten da. Posiblearen artea omen da politika.

N. Anabitarte: Aipatzen duzun posibilismoa, batzuek ezarri eta askok onartu dituzten instituzio horietan funtzionatzeari deitu ohi zaio. Noski, gu ez gara bide horretan ari. Eta esaten dugu herri honek bizirik jarraitzen badu, ez dela hain justu instituzio horietan parte-hartzea onartu duelako, herritarrek egin duten erresistentziari esker dago bizirik. Zuk, nolabait, instituzio horietan parte-hartzeari politika deitzen diozu, baina, agian, galdetu beharko genuke zer den politika. Gure ustez, guk planteatzen duguna baterago doa herri honen nahiarekin, beste sektore horiek planteatzen duten bidearekin baino.

Baina gehiengoa euren bidetik doa.

M. Erauskin: Guk hori ez dugu sekula ukatu, begi-bistakoa da. Orreaga talde txikia da. Herrian badaude babes handiagoa duten taldeak, alderdiak, baina horrek berak eurengan beste ardura bat jartzen du. Gu gure pentsamendua azalarazten saiatzen gara gure intentzio onenarekin. "Jende gehiago atzean dudalako arrazoi gehiago dudala" esatea planteamendu egokia al da?

Agian, zuen mezua urrunegi dago herri honen izaerarengandik. Alderdi horiek errealismoan edo herriak bizi duen egoeran hobeto egokitu dira. Asimilatuta izanaren egoerara egokitu ere, akaso.

N. Anabitarte: Gu ez gaude urrun herri honengandik, ez haiek baino urrunago behintzat. Agian, herritarrok ohitu gara



"Ezin dugu demokraziaz hitz egin independentziaz hitz egin gabe. Herri bat zapalduta dagoen bitartean nola hitz egin daiteke marko demokratikoaz?".

hedabideetatik egunero zabaltzen diren hitzekin, mezuekin. Ekintzetan herri honen jarduna hurbilagoa dago guk esaten dugunetik, beste horiek egiten dutenetik baino. Herriak babesa ematen die alderdi horiei uste duelako independentzia horien bidean etorriko dela.

M. Erauskin: Posibilismoan jardunez, independentzia ez dela posible esan nahi al dute? Independentzia aitzakia bezala erabiltzen ote dute? Independentzia denek erabiltzen dute. Orduan, jendeak onartzen du euren bidea. Baina mezuak aztertzen hasiz gero, praxian kontraesanez beteta daude goitik beheraino.

"Erabakitzeko eskubidea" eta "autodeterminazioa" terminoak definitzean kontrobertsiak dituzue EAJrekin eta ezker abertzalearekin, besteak beste.

M. Erauskin: Norbaitek oso zehazki definitu duenez, autodeterminazioak eta erabakitzeko eskubide delakoak ez dute zerikusirik. Aitzitik, termino hori autodeterminazio eskubidearen funtsa gabetzeko erabiltzen da. Autodeterminazio eskubidea edukiz hustu eta kontrakoa saltzen ari dira. Autodeterminazioa, berez, herria izateagatik dugun eskubidea da, burujabe izateko berezkoa. Erabakitzeko eskubidea aldiz guztiz kontrakoa da. Alegia, planteatzen ari den neurrian uko egin behar diogu herria izateari, hori da bozkatu behar dena, gure izatea bozkatzea balego bezala. Nik ez dut erabaki Mikel Erauskin naizen, banaiz, onerako edo txarrerako. Saiatu naiteke era batera edo bestera jokatzen, hori litzateke erabakitzeko eskubidea izatea. Pertsona burujabeak bizitzan planteatzen diren aukeren artean aritzeko eskubidea dauka, baina lehenik burujabea izan behar du. Nik Erauskin naizen edo ez naizen erabaki ezin dudan bezala, herri batek ezin du erabaki existitzen den edo ez. Herrien ezaugarri nagusia hori da. Munduko herri guztien lehen helburua independente izatea da, dutenek mantenduz eta galdu dutenek berreskuratuz. Guk, aldiz, nonbait, zalantzan jartzen dugu hori, eta lehendabizi bozkatu behar dugu garen edo ez erabakitzeko. Absurdua da.

> **"Demokrazia perfekturik ez dago, eta estatu demokratiko gehienak demokrazia mozorroz jantzita daude. Kontua da guk zenbatean laguntzen diegun mozorroa jantzten edo eranzten"**
>
> Mikel Erauskin

"Independentzia da demokraziaren abiapuntua" diozue, baina independentziak ez du demokrazia bermatzen.

N. Anabitarte: Noski, independentea izateak ez dio herri honi demokrazia edukitzea bermatzen, baina, lema horrek adierazi nahi du ezin duzula alderantziz jokatu. Alegia, ezin duzu demokraziaz hitz egin independentziaz hitz egin gabe. Herri bat zapalduta dagoen bitartean nola hitz egin daiteke marko demokratikoaz? Lehenik independentzia eta geure gobernua eduki behar ditugu. Gero, demokratikoki funtzionatuko dugun? Ea hola den! Alderantziz ez da izango. Politikan ari diren abertzale zenbaitek esaten dute lehenengo demokrazia lortu behar dugula. Herri bezala zapalduta baldin bagaude, ez dago demokraziarik.

M. Erauskin: Politikan giza taldeek funtzionatzen dute ez norbanakoek. Ados egon naiteke esaldi horrekin neurri batean –alegia, idenpendentziak ez du demokrazia bermatzen–, baina norbanakoa zaren heinean jendarteko parte zara. Ez dago isolatua bizi den inor. Herria, auzoan, lantokian, gizartean bizi gara.

Estatua izan daiteke askatasunaren berme?

N. Anabitarte: Zeri esaten diogun askatasuna, ezta? Aske ez da inor, herri edo kolektibo baten parte zaren heinean, hor ez zara aske. Interakzio horretan bizi behar baduzu, sekula ez. Askatasuna beti mugatua da, kontua da zure muga horien barruan ahalik eta askatasun gehien emango dizun egitura izatea. Bistan da, demokrazia mailak daude.

M. Erauskin: Posibilismoa aipatu duzu. Guk gainontzeko herri guztiek duten askatasun maila izan nahi dugu. Estatua ez dela denaren berme, eta geure estatuaren aurka ere borrokatu beharko dugula gure eskubideen alde? Ados. Baina, posibilismoaren izenean, izan dezagun gainontzekoek duten tresna hori.

N. Anabitarte: Demokrazia badago herriaren gobernua dago. Hemen batzuek esaten dute marko demokratiko batean gaudela. Demokrazian gobernua duzu eta berau ahalik eta gehien kontrolatzen duen herria dago. Demokrazia planteatzen baduzu geure gobernurik gabe, zein demokraziaz eta herriaz ari gara? Zentzu horretan diogu independentzia behar dugula geure gobernua izateko.

M. Erauskin: Demokrazia perfekturik ez dago, eta estatu gehienak demokrazia mozorroz jantzita daude, baita erabat totalitarioak diren estatuak ere. Kontua da guk zenbatean laguntzen diegun mozorroa janzten edo eranzten. Hemen askok laguntzen du demokrazia mozorrotu hori saltzen jendeari.

"Nik Erauskin naizen edo ez naizen erabaki ezin dudan bezala, herri batek ezin du erabaki izaterik duen edo ez".

Sinesmenaren esparruan sartu gara. Politika diskurtsoa, dialektika eta doktrinamendua ere bada.

M. Erauskin: Politikak izan dezake doktrinatik eta diskurtsotik, politika bestea konbentzitzeko ahalegina ere izan daiteke. Baina politika batez ere indarra da, indar harremanak neurtzen dituen jarduera, eta hori da herri honi ezkutatzen zaiona. Behin eta berriz entzuten dugu "bide baketsu eta demokratikoetatik" lortuko ditugula gure helburuak, eta orain "soilik bide politikoak" erabiliko direla. Politikan bide politikoak horrela ulertzea indarrari uko egitea da. Zapaltzen gaituzten estatuak indarraren bitartez eraiki dira eta horrela mantentzen dira. Guk geure indarra ahaztu egin behar al dugu politika egiteko? Indarrik ez bagenu bezala ari dira batzuk. Diskurtso hori uxatu behar dugu, geure diskurtsoak eta dialektikak behar ditugu, horretaz konbentzitu behar dugu gure burua.

Indarra nola bildu ordea?

N. Anabitarte: Hor dago koska! Herri honetan indarra badago, kontua da gaitasuna izatea indarra antolatzeko.

M. Erauskin: Indar hori antolatzeko estrategia berriak diseinatu eta martxan jarriko dituen lidergoa behar da, herria atzean izango duena. Behin-behineko estrategia behar dugu independentzia lortu arte. Bestela, zatituak eta estrategiarik gabe, indarrak alferrik xahutzen, herri gero eta ahulagoa izango gara. ■

NAFARROA OINEZ

Argia Ikastola, Erriberako euskara eragile nagusia

Urriaren 20an izango da Nafarroa Oinez Tuteran eta Argia Ikastola ari da jaiaren prestaketa lanetan. Hirugarren aldiz ospatuko da Erriberako hiri nagusian euskararen eta ikastolen aldeko jai handia. *Taupadaz bat egin!* dio aurtengo leloak.

| SAIOA LABAKA |

Nafarroa hegoaldeko azken ikastola da Argia; Erriberako bakarra. Fontellas herrian dago kokaturik; Tuteratik behera, 8 kilometrotara. 1984. urtean sortu zen ikastola. Administrazioari begira, ordea, 2006-2007 ikasturtean legalizatu zuten, eta harrez gero ikastetxe kontzertatua da. Nafarroako eremu ez-euskaldunean dago ikastola, eta eskualdeko euskara-eragile nagusia da.

Anika Lujan ikastolako zuzendaria tuterarra da. Bost urte daramatza Argiako zuzendari, eta irakasle lanetan orain 13 urte hasi zen bertan. Ikastolak 29 urteko ibilbidea egin eta gero, eskualdeko herritarrek hori guztia nola ikusten duten jakin nahi izan dugu: "Hiritarrek badakite ikastola hor dagoela. Ni Tuterakoa naiz, lagun gehienak ere bertakoak ditut, baina horietako askok ez dute aukeratu ikastola euren seme-alabentzat. Egoera ikuspegi soziologikotik aztertuz gero, bi aldagai nagusi daude horren atzean. Alde batetik, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politika, eta beste aldetik, Euskararen Legea; ikusezin bihurtzen ditu euskaldunak eta euskara Erriberan. Eskualdeko paisaia linguistikoan ere ez dago euskararen aztarnarik. Adibidez, orain bi urte epaitegi berria egin zuten Tuteran, eta nonbait okertuta, euskaraz jarri zuten izena eraikuntzaren fatxadan; kendu egin zuten handik egun gutxitara". Aipatu arrazoiengatik, jende askorentzat euskara ez dela existitzen eta ikastola ez dutela euren seme-alabentzat aukera gisa ikusten gaineratu digu Lujanek. Horri guztiari alderdi ekonomikoa gehitu behar zaiola ere azpimarratu digu; beste oztopo bat baita matrikulazioari begira.

BLANCA ALDANONDO

200dik gora ikasle ari dira ikasten Argia Ikastolan, txikienek 18 hilabete izaten dituzte eta zaharrenek 16 urte. Argazkian ikasleak, irakasleak eta begiraleak.

Egun, 220 ikasle daude Argia ikastolan. Normalean 18 hilabeterekin hasten dira eskolan, 16 urte bete arte. Ikasle guztien bi heren Tuterakoak dira, eta beste herena inguruko 13 herritakoak. "Fontellasen bizi diren ikasleak kenduta, gainontzeko guztiek garraioa erabili behar dute ikastolara etortzeko; eta badira egunero 40 kilometroko bidea egin behar izaten duten ikasleak. Ikastolako jangela ere ikasle guztiek erabili behar dute. Familiek ez dute dirulaguntzarik jasotzen gastu horientzako. Eta hori guztia zailtasun bat da matrikula berriak lortzeari begi-

Eraikuntzarako materiala
GALPARSORO
Salmenta:
axulejo eta gresa
komunak · manparak · komuneko altzariak
obra hondakinen bilketa
✆ 943 300 145
Faxa: 943 300 012
Borda Berri industrialdea, 5. pab.
Andoain (Gipuzkoa)

ra. Nahiz eta Erriberako familia batzuk euskararen oso aldekoak izan, hori guztia baloratu egin behar dute", aipatu digu Lujanek.

Administrazioaren laguntza eza, Euskararen Legea eta krisialdia. Testuinguru horretan, Argia ikastolaren helburu nagusia da bere horretan jarraitzea. Anika Lujan: "Erriberan euskara zabaltzeaz eta sustatzeaz gain, Nafarroa Oinezeko helburu nagusia ekonomikoa da, benetan; ahalik eta diru gehien lortzea. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irekita mantentzeko, Nafarroako Gobernuak ezarritako eskakizunak bete behar izan ditugu; inbertsio handiak egin. Kasu honetan, kiroldegia eraiki behar izan dugu. Eraikin hau egiteko Administrazioaren aldetik ez dugu inolako erraztasunik jaso eta hori dena familien esku geratu da".

KRISTINA LALLANA

ARGIA IKASTOLA

Urtean zehar makina bat ekitaldi antolatu dute. Kilikada, esatera baterako. Bardeetan bizikleta martxa urtero egiten dute. Euskal Herriko ia 500 ikasle elkartzen dira eta helburua euskara lagunen artean erabiltzeko aukera izatea da.

Guraso erdalduneko ikasle euskaldunak

Argia ikastolako ikasle gehienentzat ikastetxea bera da euskaraz hitz egin ahal izateko eremu bakarra. Erriberan ez dago euskaraz bizitzeko aukerarik. Ikastolatik at, gaztelaniaz bizi dira, oro har, ikastolako ikasle gehienak. Erdaldunak dira ikasle gehienen gurasoak, eta oso gutxi dira familian edo lagunartean euskaraz aritzeko aukera daukatenak. Tuteran topa daitezke familia euskaldun gehien; bertakoak dira egungo ikasle eta ikasle ohi gehienak eta bertan bizi dira Euskal Herriko beste txokoetatik etorritako familia gutxi batzuk ere. Horrez gain, euskaldun gutxi eta oso sakabanatuta daude Erriberan. Anika Lujan: "Ikastolako gurasoen jarrera ona da euskararekiko, jakina denez. Guraso erdaldunei eskaintzen dizkiegu euskaraz ikasteko ikastarotxo batzuk ikastolan bertan, eta batez ere saiatzen gara beraiei jakinarazten zein inportantea den jarrera positiboa izatea hizkuntzarekiko. Nahiz eta beraiek euskara ez jakin, esaten diegu ez diezaietela haurrei transmititu hori oztopo bat denik eta ez dezatela inoiz hizkuntza gutxietsi egunerokotasuneko egoeretan".

Jon Illarramendi DBHko euskara irakaslea da, getariarra eta zortzi urte daramatza ikastolan; bere ikasleek, 12-16 urte bitarteko gaz-

BLANCA ALDANONDO

Pilotaleku berrian Nafarroako Dantzari Txiki Eguna ospatu zuten, ekainaren 9an.

teek, Erriberan euskaraz ikastea nola bizi duten galdetu diogu: "Ikasleek badakite ikastolako helburuak zeintzuk diren. Zentzu horretan, euskararekiko oso jarrera positiboa daukate. Gertatzen dena da ikastolatik kanpo dituzten harreman gehienak gaztelaniaz finkatuta dituztela, eta ohitura horiek aldatzea asko kostatzen zaiela. Gaztelaniaz hitz egiteko joera handia dute, erraztasun gehiago daukatelako. Baina irakasleekin euskaraz hitz egiten dute eta saiatzen dira, hein handi batean, gelan ere euskaraz hitz egiten". Horren harira, ikastolako zuzendariak gaineratu digu DBHko ikasleek asko baloratzen dutela hizkuntzaren transmisioaren ideia; badakitela balio berezia daukan hizkuntza bat ikasten ari direla eta euren esku geratuko dela hizkuntzaren transmisioaren jarraipena. Oso pozik dagoela adierazi digu Lujanek, gazte kontzientziatuak eta inplikatuak izango direla ikusten duelako.

Batxilergoa gaztelaniaz baino ez

Ikasleek ikastola uzten dutenean, euskara maila polita lortzen dutela jakinarazi digu Illarramendik; B2 maila arazorik gabe lortzen dute: "Ikastolan euskararen transmisioaren ideia eta kontzientzia lantzeaz gain, ikasleak Euskal Herriko beste herrialde batera joaten direnean euskaraz naturaltasunez komunikatzeko gai izatea nahi dugu. Maila informalean, ordea, lagunarteko hizkeran, dituzte komunikatzeko zailtasun gehien; hori da gehiago landu beharko litzatekeena, nire ustez. Gure ikasleak beste ikastetxeetako lagunekin elkartzen dira ikastolatik kanpo, eta euren artean gaztelaniaz aritzen dira; norbaitek euskaraz ez dakienean, hala egiten dute".

DBHko azken maila ikasten ari den Aitor Bergara ikaslearekin hitz egiteko aukera izan dugu, bere egoera ezagutzeko. Txikitatik hasi zen ikasten Argian eta egun 15 urte ditu; azken urtea du ikastolan. Tuteran bizi da, baina Bergara eta Eibar ingurukoa da bere familia. "Nire gurasoek, zortez, badakite euskaraz, eta etxean euskaraz hitz egiten dut beraiekin. Nire gelako bakarrenetarikoa naiz. Kalean ez da euskara entzuten, baina ez zait arraroa iruditzen, txikitatik bizi naizelako hemen. Lagunartean, zoritxarrez gaztelaniaz hitz egiten dugu normalean. Gelan 20 bat ikasle gara, elkarrekin bost bat lagun ibiltzen gara, baina beste ikastetxeko lagun batzuekin ibiltzen garenez kalean, eta haiek euskaraz ez dakitenez, ba ezin dugu euskaraz hitz egin. Nahiago nuke euskaraz hitz egiten ibili, baina ezin dut".

Datorren urtean, Bergarara joango da Aitor batxilergoa euskaraz ikastera. Euskarazko ikasketekin jarraituko duen bakarrenetakoa izango dela jakinarazi digu berak. Jon Illarramendik azaldu dizkigu zer aukera dituzten ikasleek ikastolatik irtendakoan: "Ikasleek ikasketak euskaraz egin nahi badituzte, Iruñera joan beharra daukate. Oso ikasle gutxi dira hori egiten dutenak; iaz hiru ikasle joan ziren, esaterako. Tuterako institutura joaten dira ikasle gehienak, A eredua daukate eta euskara ikasgai gisa aukera dezakete. Euskara ikasten jarraitzeko hizkuntza-eskola ere hor daukate, C1 maila ateratzeko. Eta unibertsitatera joaten direnean, euskara ere hauta dezakete". ■

HERRIRA

Ustezko tentakuluak eta Estatuaren tentazioak

Herriraren kontrako operazioak iragandako garai bateko irudiak ekarri dizkio askori gogora. Haatik, ETAk jardun armatua utzi zuela bi urte igaro direnean, ezinezkoa da pentsatzea bide horretan atzerapausorik gertatuko denik; Espainiako Gobernuak barne iritzia asetzeko egindako mugimendua dirudi gehiago.

URKO APAOLAZA AVILA

ARGAZKI PRESS / J.C. R.

Atxiloketak egin eta egoitzak miatzeko operazio zabala jarri zuen martxan guardia zibilak. Irudian, Hernaniko egoitzan.

GUARDIA ZIBILEK berriz ere Euskal Herriko herri eta hiriburuetako plazak hartu, egoitzak miatu eta dozena eta erdi lagun atxilo hartzea ez da seinale ona. Herriraren kontrako sarekadak duela bost, hamar edo hamabost urteko operazio polizialen osagarri asko izan ditu. Hala ere, koiuntura erabat ezberdina da, eta garai berriotan, Espainiako Estatuak gero eta gaitzago du halako triskantzak egitea; hori esan diote milaka lagunek egunotan.

Presoen oinarrizko eskubideen aldeko mugimenduak duen indarra azalera irten da berriz ere, sektore politiko zehatz batzuetatik harago dagoen eskaera orokorra dela agerian geratu da. Baina, nagusiki, herritarren eskubideen urraketa

ARGAZKI PRESS / LUIS JAUREGIALTZO

Herriraren kontrako operazioa salatzeko eta presoen eskubideak aldarrikatzeko manifestazio jendetsua, urriaren 5ean Bilbon.

moduan ikusi da Herriraren kontrako sarekada eta parametro horietan mugitu da hari emandako erantzuna. Ez da ideia batzuen kontra egin, ideia horiek defendatzeko eskubidearen kontra baizik eta horrek, beste faktore batzuen artean, aktibatu du jendea.

Irailaren 30ean guardia zibilak Herrira mugimenduaren egoitzetan sartu eta berehala, eragile sozial eta sindikal ugarik egin zuten bat operazioa salatzeko. Zenbait sigla eta politikariren jarrera deigarria izan da, Jesus Egigurenek bere blogean idatzitako *post* gogorra adibidez –sarekada "astakeria politiko eta judiziala" zela zioen–, edo estatu mailako sindikatuek izandako jarrera kritikoa.

EAJk bi eskurekin jokatu du auzi honetan, eskuinez ezker abertzalearen teilatuan jarri du pilota, ezkerrez EH Bildurekin salaketa adierazpena hitzartu du Eusko Legebiltzarrean. Asko izan dira distantziakidetasun hori kritikatu dutenak. EAJk azaldu du "atzeraldi kezkagarria" dela gertatutakoa, baina bi aldetara begiratuz, ETAren azken agiria aitzaki hartuta.

Haatik, ETAk jardun armatua utzi eta bi urtera, ezinezkoa da pentsatzea alde horretatik inboluziorik egongo denik, ezta ezker abertzaleak estrategiaz aldatuko duenik ere (ikusi 50. orrialdean Xabier Letonaren analisia).

Leize mediatikoari bazka

Euskal jendarteak ez du atzerapausorik nahi, ez du Garzónen garaietara itzuli nahi, *entornoaren entornoa* mintzagai zen urteetara. Egunkariaren eta Udalbiltzaren kontrako epaiketetan gainditutzat eman ziren tesi horiek, orduko absoluzioek erabat desmuntatu zuten ustezko peritu polizialek sortutako ipuina.

Baina badirudi estatu aparatuek berriz ere bide hori egiteko tentazioa izan dutela, oraingoan "tentakulu" hitza erabilita. Eloy Velasco Auzitegi Nazionaleko epaileak bere autoan aipatzen du Herrira ETAk presoak kontrolatzeko plataforma dela, eta legez kanpoko taldeen ondorengo izatearen delitu klasikoa abiapuntutzat hartuta, kontakizun fantastikoa osatzen du. Espainiako Barne ministroaren diskurtsoa literatura pixka batez blaitzeko zuku paregabea.

Beste afera bat zabalik geratu da Auzitegi Nazionalean eta ez da sekretua Estatuak egoera politikoan eragiteko erabiltzen dituela auziok

Honakoa izan liteke Parot doktrina bertan behera uzteko Estrasburgok emango lukeen balizko aldeko epaiaren aurrean egindako operazioa, gogor plantak, Ines del Río askatu behar izanez gero, ez dadin errepikatu Josu Uribetxeberria askatu zutenean jasotako kanibalismo polikoa –Rajoyk barne eraso gogorrak jaso zituen kritikoengandik–. Baina arriskutsuegia da oraindik erabaki gabe dauden epaiez hitz egitea. Bestalde, litekeena da arrazoi bat baino gehiago izatea sarekadaren atzean. Gauza bat garbi dago, PPren gobernuak oraingoz badu nahikoa leize mediatiko eskuindarrari jatena emateko.

Beste auzi bat zabalik Auzitegi Nazionalean

Herrira ezagutzen duenak badaki –poliziek ere bai, noski– mugimendu irekia eta gardena dela, eta preso politikoen eskubideen aldeko eskaera zehatz batzuk defendatu izan dituela, besterik ez. Eloy Velascok aske utzi ditu 18 atxilotuak horietako lau fidantzapean. Eta hemen ez da ezer pasa.

Baina bai, pasa da. Atxilotuak zeuden bitartean senide eta lagunengan ezinegona sortu dute; libre utzi eta gero pertsona horiei mugitzeko baldintzak jarri dizkiete –hamabostero aurkeztu behar dute poliziaren aurrean, ezin dira Espainiako Estatutik irten…– eta muga politikoak ere bai –ezin dute presoen eskubideen aldeko ekintzetan parte hartu–; Herrira mugimenduaren jarduna bi urtez geldiarazi eta egoitzak itxi dituzte…

Beste afera bat zabalik geratu da Auzitegi Nazionalean, eta ez da sekretua Estatuak egoera politikoan eragiteko instrumentu gisa erabiltzen dituela auziok. Laster Segiko eta Herriko Tabernetako auziperatuak epaituko dituzte, batzuk ia 12 urtez espainiar justiziaren linboan sufriarazten eduki eta gero. Zenbat denbora igaroko dute Herrirakoek? ■

DANI BLANCO

Pello Zubiria Kamino
✦ ARGIAKO KAZETARIA

Zoru patetikoa, lehendakari jauna

INFORMAZIO ITURRIEKIN ez dauzkadan loturak behar nituen 2013ko urriaren 1ean, Herrira elkartearen kontrako sarekadak esan nahi zuena interpretatzeko. Zuk eduki behar dituzu datuak eta hipotesiak, Iñigo Urkullu lehendakari jauna, oinezko kazetari batek galderak baizik ez dauzkan lekuan: Sortu ilegalizatzeko bidean emandako urratsa da? ETAko presoak prestatzen ari diren estrategia aldaketa eragozteko maniobra? ETAk armak desaktibatzeko laster egingo omen dituen keinuak desitxuratu nahi ote dira? Parot doktrina famatuaz Estrasburgok eman behar duen epaiarekin dauka zerikusia? Ala, besterik gabe, Espainiako populuari antolatu zaio espektakulu berri hau, Katalunia eta krisi ekonomikoa ahaztu ditzan?

Erantzunik ez, baina ikuskizun tamalgarria aurkitu nuen Hernaniko kaleetan. Jendea ordu luzez zain, aurrean kasko gorri kagula-dunez osatutako hesia, beste aldean *guardia civil* andana harro lasai. Bere atxilotuetako asko torturatzeak famatu egin dituen guardia zibilak ari ziren gerrako operazio bat antolatzen gure herrian. Lehendakari jauna, zure aginduetara joandako ertzainak, gure etxekoen soldatetatik ere ordainduak, ez zeuden han berdezko militar espainolen jarduera kontrolatzeko, guardia zibilak jendearengandik babesteko baizik. Egun osoan. Garaiz erretiratu ginenok goizean gosaldu genuen, iluntzean herriko kaleetan ertzainek egindako balentriaren irudiekin, egurra nasai, berdin dio borra edo pilota, kopeta ireki hautetsi bati, bizkarrekoak langabetuari, ostikadak kalean harrapatutako aitonari. Handiaren aurrean otzan, txikia zanpatzeko errukirik ez.

> *Lehendakari jauna, zure aginduetara joandako ertzainak, gure etxekoen soldatetatik ere ordainduak, ez zeuden han berdezko militar espainolen jarduera kontrolatzeko, guardia zibilak jendearengandik babesteko baizik*

Goizeko kafea harturik lanerako bidean ikusirik atxilotuetako baten mutil laguna, ez naiz diosalik egitera ausartu. Zertarako urratu zauria ezin badiot behar duenik eskaini: nork bermatzen dio bikotekidea ongi tratatzen diotela berdezko militar horiek? Horra zertan dagoen gure etikaren zorua, lehendakari jauna, ez zuk, ez ertzainen buru egiten duen emakumeak, ez Ararteko deitzen den herritarren balizko defendatzaileak, ez biktimen deretxoez okupatzen den zure Bake eta Bizikidetzarako idazkariak, inork ezin die atxilotuen senideei esan beren neska edo mutila non dauden ere. Ez da gure eskumenekoa. 2003ko otsailean ez zen moduan, berdin 1991ko otsailean. Guardia zibila dagoen lekuan ez da bestelako eskumenik, amen esateko tarte estu lotsagarria baizik.

Gaur sentitzen dut, lehendakari jauna, euskaldunok zero etikotik hasi beharra daukagula. ■

Txangurrua

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermín Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

✆ 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Estatuaren formula zaharrak vs. herritarren zilegitasun berria

Atxiloketak, salbuespen neurri judizialak eta Ertzaintzaren kargak albiste izan diren aste baten ondoren garai berriei buruz hitz egiteak txiste tankera har dezake baina, Herriraren kontrako polizia-operazioak ekarri duen erantzun soziala kontuan hartuz gero, gutxien-gutxienez errepresio politiko-judizialaren aurkako jarreran ziklo aldaketaren zantzuak antzematen dira.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

"ETA ORAIN zertara dator hau?", taberna eta lantoki askotan entzun da esaldia. Atzerrian bizi den lagun batek galdetzen zuen, atxiloketen kontra sarean argitaratzen ari zen iruzkin-sorta ikusirik, ea *Egunkaria*ren itxierak eragin erreakzioaren mailakoa izango ote zen oraingoa. Seguruenik ez. Eta halere, ordukoarekin konpara liteke, geroz eta argiago zedarritzen ari baitira herritarrak noraino onartzeko prest dauden –eta operazio hau ez dela inondik inora muga horien barruan sartzen–.

Hernanin jende ugari bildu zen Guardia Zibilak eta Ertzaintzak muntatutako operazioaren aurrean.

Hurrengo pantaila

ETAren menpekotzat joz egunkari, herri mugimendu, alderdi edo elkarte, zernahi, jazartzeko estrategiak hasieratik eragin zuen euskal gizartearen zati handi baten erantzuna, baina beste askok onartu edo, gutxienez, pasibotasunez jokatu dute arrabola polizial-judizialaren gehiegikerien aurrean.

Gatazka armatuaren dinamikak laguntzen zuen: Espainiako Auzitegi Nazionalaren atzaparkada bakoitzeko telebistak ETAren hilketa batekin erantzuten zuenean, diskurtso hegemonikoak gatazkaren biktima batzuk erakutsi eta besteak ezkutatzen zituenean, askok injustizia ikusi arren publikoki posizionatzeari uko egin zioten, beren burua "terroristen" bandoan kokatzea saihestu nahian edo.

2013an gaude ordea, ETAk bi urte daramatza geldirik, behin betiko desagertzeko Espainiako Gobernuaren urratsen zain erantzunik gabe. Bideojoko bati buruz ariko bagina, esango genuke ETAk erabateko menia iragarri zuenean pantaila bat pasa zuela euskal gizarteak. Eta hurrengo pantailak lege diskurtsibo berriak dauzka. Indarkeria bat desagertzeak besteak ikusgarriago egin ditu, hitz askoren esanahia kolokan jarri da –biolentzia, bakea...–; eta zenbait agente politiko ez daude eroso egoera berrian, leku segurua aurkitu ezinda.

Herritar asko sentitzen ari da horrelako ekinbide polizialen kontra protestatzeko zilegitasun berritua

Molde berriak

Testuinguru horretan, errepresioaren kontrako mugimendua astiro baina gelditu gabe borroka moldeak berritzen ari da. Ohiko formulek –Bilboko manifestazio jendetsua bezalakoek, adibidez– elementu zentral izaten jarraitzen dute, baina bestelako ekimenak agertzen hasi dira. Adibidez, polizia-operazioaren epizentroan, Hernanin, 24 orduko "irekialdia" antolatu zuten joan den ostiralean M15 edo Occupy mugimenduak gogora ekartzen zituen programazio sozio-kultural parte hartzaile eta espontaneoarekin.

Euskal Herrian garai berriak hasi direla kantatzen hasteak gustu txarreko broma eman dezake Espainiako Estatuak formula zaharminduak errepikatzen dituela ikusita. Baina herritar askok horrelako ekinbide polizialen kontra protestatzeko zilegitasun berritua sentitzen dutela ez ikustea ere, begia kamutsegi edukitzea litzateke. Ikusi behar ea erantzun puntualetatik jabekuntza prozesu sakonagoak etorriko ote diren. ■

‘Aiaraldea Egunkaria’ eta Tolosaldeko Ataria komunikazio proiektu berriak jaio dira

Aiaraldea Egunkaria Bizkaiko eta Arabako bederatzi herritan (Amurrio, Arakaldo, Arrankudiaga, Artziniega, Aiara, Laudio, Okondo, Orozko eta Urduña) banatzen da joan den ostegunaz geroztik. Hamabostekaria izango da, 16 orrikoa eta erdiak koloretan. 10.000 ale banatuko dituzte doan.

Aiaraldea Komunikazio Leihoa elkartearen erronka bat gehiago da. Elkarte horrek 2010ean aiaraldea.com ataria jarri zuen abian eta 2012ko abenduan, irratia. Elkarteko kideek badakite Aiaraldeko hainbat herritarrek ez dutela internet erabiltzen edo ez behintzat egunerokoan eta horregatik erabaki dute paperari heltzea.

Aiaraldea Egunkaria bederatzi herrietako tabernetan, ileapaindegietan, osasun zentroetan eta gainerako salmenta guneetan banatuko dute. Dena dela, arreta berezia jarriko dute ikastetxeetan eta euskaltegietan.

Aiaraldean 41.253 herritar bizi dira eta %58,55 dira gai euskara

ulertu eta euskaraz aritzeko. Erabilera aldiz, askoz murritzagoa da. Kale neurketak dioenez, %5era ez da iristen. Elkartearen ustez, beharrezkoa da euskaraz aritzeko espazio berriak zabaltzea eta horietako bat izango da *Aiaraldea Egunkaria*.

Hiru egitasmo bat eginda

*Tolosaldeko Hitza*k, *Galtzaundi Aldizkaria*k eta Txolarre irratiak bat egin dute, eta erredakzio bakarrean arituko dira lanean. Egitasmo berriak Tolosaldeko Ataria izena hartu du. Papereko *Tolosaldeko Hitza*k eta *Galtzaundi Aldizkaria*k bat egin dute eta hemendik aurrera *Hitza*ren argitalpen egunak mantenduko ditu *Ataria* agerkari berriak, alegia, astearteak, asteazkenak, ostegunak eta ostiralak. Bi hedabide digitalak ere batu dituzte eta egitasmo osoak bezala *Tolosaldeko Ataria* (ataria.info) du izena. Txolarre irratiak berriz, Ataria izena hartuko du hemendik aurrera. Hiru egitasmoek hamar urtetik gorako ibilbidea izan dute gaur arte.

Ainhoa Oiartzabal Atariko arduradunak adierazi duenez, indarrak batu, baliabideak optimizatu eta eraginkorragoak izateko ahalegina egingo dute.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Ganadua balira tratatuak

Hemen, Europan, urtetako borrokaz lortutako ongizatea mantentzea exijitzen eta eskatzen dugun bitartean –eta bidezkoa eta beharrezkoa da hori–, 842 milioi pertsona –planetako zortzi biztanletik bat– gosez eta gaitzez hiltzen ari dira. Milioika lagun horietatik ez gutxik, biziraun nahian, euren burua itsasora jaurtitzen dute, bizitza arriskuan jarrita ere. Kapitalismoak euren herrian ukatzen dien eguneroko ogi bila doaz, baina aldi berean kapitalismoak herri horiek esplotatzen ditu, Afrikan, Asian eta Hego Amerikan dauden natur baliabideetatik etekin handiak atereaz. Milaka immigrante, gehienetan oso gazteak, Europan euren paradisu berezia bilatzera derrigortzen dituzte… Eta saiakera horretan askok bizitza galtzen dute. Horietako zenbait herioan jasotzen dituzte, baina gehienak ez. Europako itsasoak milaka immigranteren hilerri anonimo bilakatu dira. Joan den ostegunean, Italiako Lampedusa irlan, 300dik gora lagunek bizia galdu zuten eta 500 inguru afrikar zeramatzan itsasontzitik 155 baino ez dituzte bizirik atera. Itsasontziak su hartu zuen eta ondoren hondoratu.

Beste batzuk immigrante trafikanteek berek botatzen dituzte itsasora. Horixe da Siziliako hegoaldeko kostan joan den astean aurkitu zituzten 13 eritrearren hilotzen kasua. Herri hartako alkatea ziur da trafikanteek “itsasora jaurti zituztela, ganadua balira bezala”.

Guk, “pribilegiatu” europarrok, murrizketa larriak jasan ditugun arren –eta logikoa da horien kontra borrokan segitzea–, ezin dugu giza errealitate hori ahantzi, eta odolustea gelditzeko modu solidarioak bilatu behar ditugu, herri haietan gose eta gaixotasunik izan ez dadin. Kapitalismoaren kontra borrokatu behar dugu, Afrikan, Asian eta Hego Amerikan milioika lagunek jasaten duten esplotazioaren kontra.

Juan Mari Arregi

Qatar 2022: esklaboek eraikitzen dute mundiala

Hiri ultramodernoak basamortuan? *The Guardianek* azaldu du mirariaren trikimailua: Qatar erresuma petrolioduneko ugazabek India, Nepal eta beste urrunetatik eramandako milaka langile esklabotzan darabilzkite 2022ko mundu mailako futbol kopa jokatzeko azpiegituren eraikuntzan. Egoera aldatu ezean, 4.000 obrerok galduko du bizia lanean.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

Arabian Bussiness aldizkariaren gunetik hartu irudian, Nepaletik iritsitako langileak Qatarreko basamortuan eraikitzen ari diren Lusail hiri berriko obren artean. Nepal, India, Filipinak, Bangladesh, Pakistan... urrundik heldutako langileek mugiarazten dute munduko herrialderik aberatsenetakoa den Qatarren ekonomia. Nazio Batuen Erakundeak plazaratzen duen Giza Garapenaren Indizean herrialde arabiarren artean buru dago Qatar. Ekialde Hurbileko geopolitikan berak hartu nahi du nagusitasuna, AEBen bazkide berezia, Libiakotik hasita Siriakoraino krisi guztietan esku hartuz, Al Jazeera katearekin mundu osoan eraginez. Aldiz, inperio ametsak dauzkan qatartarrak langile atzerritarrak darabiltza erakunde askok esklabotza eta lan bortxatutzat dauzkaten baldintza gogorretan: ordutegi luzeegiak, jornal txikiegiak, paperik gabe bahitu gisan erabiliak, jipoi eta tratu txarrak, segurtasunik eza...

Dozenaka langile nepaldar hil dira aste gutxiko tartean Qatarren eta milaka gehiagok jasaten dituzte lan eta bizi baldintza penagarriak, Qatarrek 2022an mundu mailako futbol txapelketa bertan jokatu dadin eraikitzen dituen azpiegituretako lantegietan.

Hitzokin hasi du "*Qatar's World Cup slaves*" kronika Pete Pattissonek *The Guardian* egunkarian. Futbolaren sehaska izan den Britainia Handian arrabots pixka bat zabaldu du albisteak. Goizero San Mames Barriako obren, Errealeko jokalariren baten zaintiratuaren edo Osasunaren azken larrialdiaren zalaparta artean gosaltzen dugunok arreta pittin bat jarri behar genioke.

Uda honetan ia egunero hil da langile bat Qatarreko xantierretan. Horietako asko gazteak eta ofizialki bihotzeko atakez. Pattisson kazetaria Qatarreko Doha hiriburuan ibili da mundu osoko sindikalistek salatutakoak egiak ote diren ikertzen. Arabiar Golkoko basamortuetan higatzen diren obreroen jaioterrian ere izan da, Nepalen. "*Qatar: the migrant workers forced to work for no pay in World Cup host country*" bideoz hornitu du idatzizko kronika.

Internetez eskuragai dagoen dokumentuan, 4 minutu gehi 24 segundo pasatakoan, kazetariak gauez iristen dira Nepaleko Dang distrituko herrixka batera, furgoneta zuri bati segika. Iritsita, gizonek deskargatuko dute zerraldoa, emakumeen nigar eta garraisien artean. Ganesh Bishwakarmaren gorpua beilatu behar dute.

16 urte besterik ez zuela joan zen Ganesh Qatarrera. Gutxieneko adina ez zeukanez, paper faltsuak egin zizkioten emigratu ahal izateko. Harentzako, Nepaleko beste laborari-seme askorentzako bezala, zerua izan behar zuen Qatarrek, sorterrian utzitako familiari laguntzeko balioko zion *Eldorado* modernoa. Sei asteren bueltan hilotz etxeratu dute.

Amaren ondoren aita mintzatu zaie kazetariei, galdutako semea ibai ertzean egur pila baten gainean erretzerakoan. "Gure semeak osasun ederra eduki du beti, eztul bat ere ez du egin. Zerk gaixoarazi du? Klimak? Beste zerbaitek? Galderok estutzen didate bihotza, gau eta egun". Eta aurreraxeago: "Ez dakit nola pagatu ahal izango diedan egindako zorra. Dirua laga zigutenek ez digute zorra barkatuko".

Herriz herri joaten dira kontratatzaileak atzerrirako gazte bila. Lana agintzen diete urrutian, baina kontratuaren eta bidaia egiteko gastuen truke dirutza eskatuz. 16 urteko Ganesh mutikoari 20 urte zeuzkala zioten paperak eta bidaia antolatu zion *broker*-arekin, Qatarren garbiketa atalean eskuratuko omen zion enpleguaren esperantzan, 150.000 rupiako zorra hartu zuen familiak bere gain. 1.111 euro derrigor itzuli beharrekoak, %36eko interesa eraginez urtean. 1.111 euroko zorra itzuli? Nepalen eraikuntzan ari den obreroak egunean 2-3 euro irabazten du, ostalaritzan ari denak 0,75 euro...

4.000 langile hil daitezke

Urtero Nepalek dauzkan 26,5 milioi biztanleetatik 400.000 doaz Himalaiatik urrun lan bila. Hareazko Qatarrera iritsiko dira horietatik 100.000z goiti.

1970ean 111.133 biztanle zeuzkan Qatarrek 2013an 1,9 milioi dauzka. Ezinezkoa da ugalketa hori alimaleko immigrazio bat gabe. Qatartarren %15 baizik ez da bertakoa eta hurbileko herrialde arabiarretatik iritsiak %13 gehiago. Gainerako guztiak, urrutikoak. Indiakoak (%24) bertakoak baino gehiago dira, Nepaletik iritsiak (%14) ere bai. Ondoren datoz Filipinetakoak, Bangladeshekoak eta beste.

Lurpean oraindik ugari daukaten petrolioari esker, basamortu idorra baizik ez zen Qatarren hiri modernoenetako eraikin eta bestelako azpiegiturak altxatu dituzte urteo-

tan ekarritako etorkinek. Orain hango indar ekonomikoek eskuartean dauzkaten garapen proiektuen artean izar eta ikurra 2022an bertan jokatuko diren munduko futbol koparen instalazioak dira: estadioak, hotelak, errepideak...

Ondoko urteetan milioi bat etorkin hartuko ditu Qatarrek batzuen kalkuluetan. Prestaketa lanetan, agintariek ez badituzte eraikitzaileak eta hauen kontratistak arrastoan sartzen, 4.000 langiletaraino hil daiteke, Sindikatuen Nazioarteko Konfederazioak (ITUC ingelesezko sigletan, CSI gaztelaniazkoetan) salatu duenez.

Txirotasunetik ihesi nahian, Nepaletik lan bila atera nahi dutenek galdera gutxi egiten dute eta zor handiak hartzen beren gain. Golkoko edozein herrialde dolarrez usteldutan aurkituko dutena lehendik azaldua du hamaikatxok. Roy C. Raphael kazetariak *"Slaves of Saudis: Terrorisation of foreign workers"* liburuan kontatu du langile indiarren bizimodu mixerablia Saudi Arabian. NET HURBIL honek 2007an egin zion oihartzuna Dubaik orduan ezagutu zuen greba gogorrari: *"'Dubaibilonia': langileak greban hiri futuristan"*. Geroztik gauzak ez dira hobetu, hainbeste milioika jende dago biziraun nahian esklabotza onartu beste aukerarik...

*The Guardian*ek aurkitu ditu Doha eta inguruetan hilabetetan kobratu ez duten langileak, nagusiek soldata gorderik. Kontratistek pasaporteak kentzea ohikoa da; ez pasaporterik eta ez bestelako identifikazio kartarik gabe, ezin dira kalera irten, are gutxiago beste enpresa batera jo lan eske, estralurtarrak baino ilegalago.

Lan baldintzarik gogorrenetara bortxaturik daude menditarrok, termometroak 50ºC gainditzen duen giroan. Kazetariak bildu ditu ura eta janaria ukatu zaienen lekukotasunak.

Bizilekutzat dauzkate Mendebaldean animalientzako onartuko ez liratekeen egoitzak. Gela batean dozenatik gora lagun batera, labezomorroz eta euliz betetako jantoki zikinak, izen hori merezi ez duten sukaldeak. Ez da harritzekoa baldintza horietan asko gaixotzea.

*The Guardian*ek elkarrizketatu ditu dirurik eta paperik gabe, Qatarretik irten ezinean, Dohako enbaxadan babesturik, noiz etxeratuko zain dauden 30 nepaldar ere. Eskandalua suturik, Qatarreko mandatariek agindu dute esku hartuko dutela. Baina oraingoz Aidan McQwade Anti-Slavery Internationaleko zuzendariak esan duenez "kontua ez da gerta litekeela munduko kopa esklaboen lanean oinarritzea: dagoenekoz gertatzen ari da".

2022 artean Qatarrek gastatuko ditu 100.000 milioi dolar baino gehiago eraikitzeko bederatzi futbol estadio berri, aireportu berria (Emirrarentzako terminal berezi eta guzti), autopista Bahrainekin lotzeko, abiadura handiko trena, metro sarea eta 29 hotel berri. Munduko koparen finala Lusail bataiatu den hiri osorik berrian jokatuko dute. ■

ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.
Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com

Xabier Letona

DANI BLANCO

Indarrak galtzen duenean

IRAGANERA itzuli izanaren ideia eta irudia barreiatu da leku askotan Espainiako Auzitegi Nazionalak Herriraren aurka egindako operazioaren harira. Egia esan, argazkiak hori erakusten zuen: guardia zibilen harrokeria, atxilotuak, Ertzaintzaren oldarraldiak, adierazpen instituzionalak, manifestazio erraldoia Bilbon…

Erakunde, alderdi eta hedabide askotatik zabaldu den irudietakoa da iraganarena. Eusko Jaurlaritzako eta EAJko bozemaile Josu Erkorekak eta Koldo Mediavillak ere ideia horiek azpimarratu zituzten, lehenak atxiloketak hasi eta orduetara eta bigarrenak "*Las tentaciones del pasado*" artikuluan (*Deia*, 2013-10-5). Mediavillaren ustez, Espainiako Gobernua eta ezker abertzalea iraganera itzultzeko tentaldian dira eta hori saihestu behar dute.

Zorionez, ordea, ez dago iraganerako itzulerarik, eta ez da egongo, ez behintzat lehengo eskeman. Eta ez Espainiako Gobernuak eta PPk nahi ez dutelako. Ez da egongo ezker abertzaleak berak nahi ez duelako, borroka armatua uzteko erabakia atzeraezina delako eta, kosta ahala kosta, bake prozesua eraikitzeko ahaleginean ari delako. Borroka armatuaren harritzarra gainetik kentzea lortu zuen eta, gaur egun garai hartako zama asko baditu ere –nagusiki presoena–, desafioari aurre egiteko armen sasoian baino egoera mila bider hobean dago.

PP da iraganean kokatua dirudien aktore bakarra: inongo mugimendurik ez eta egurra. Eta, hala ere, zantzu desberdin batzuk ikusi dira oraingo sarekadan: inkomunikaziorik ez, beraz, atxilotuak konfiantzazko abokatuarekin epailearen aurrean; tortura eta tratu txarrik ez; eta 14tik 10 atxilotu baldintzarik gabeko askatasunean libre. Ez dira inor zoriontzeko datuak, baina deigarriak bai eta, beraz, azpimarragarriak ere bai.

ETA ZERGATIK? Hori da denon buruan jira-biran dabilen galdera nagusia. Pablo Muñoz Noticias Taldeko zuzendari ohiak arrazoi nagusia jaurti du *Deia*-ko iganderoko bere artikuluan, Parot doktrinaren aurkako epaia berretsiko ei da: "Moncloak badu daturik Estrasburgon josten ari denaz eta esparru juridikoetan ia segurutzat ematen da, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak 2012ko uztailean Parot doktrina deitutakoari emandako arbuioaren aurka Espainiako Gobernuak jarritako helegitearen aurkako epaia".

> *Zorionez, ez dago iraganerako itzuleratik, eta ez da egongo, ez behintzat lehengo eskeman*

Muñozen analisian, PPk aurre hartu nahi dio Espainiako sektore atzerakoienek ekingo dioten kanpainari, epaiaren ondorioz presoak kaleratzen hasten direnerako. Hala balitz, irudi gogorrik behintzat ez litzaioke faltako Espainiako Gobernuari, Herrirako sarekadaz gain, datorren astean Segi eta Herriko Tabernen makro-epaiketak hasiko baitira.

PSOErekin Moncloaco korridoreetan ibiltzera ohitua zegoen Luis R. Aizpeoleak, beste ikuspegi bat jartzen du mahai-gainean (*El País*, 2013-10-5): ilegalizazioena. Bere esanetan, ezker abertzalea beldur da hau Sorturen legez kanporatzearen atarikoa ote den eta horregatik erantzun du horren indartsu Bilboko manifestazioarekin.

Zenbateko errealitate zantzua izan dezake halako hipotesiak? PPren eta Auzitegi Nazionalarekin denera ohituak bagaude ere, gauza bat da PPk oraingoz egoera berriei ateak ez irekitzea, eta bestea Sortu legez kanporatzeko moduko atzerapauso erraldoia ematea. Ez dirudi horren baldar jokatzeko moduan dagoenik, ETA jardunean egon barik –zeresanik ez desagertuko balitz–, onura baino kaltea baita jaso lezakeena, bereziki nazioartean eta Euskal Herrian. Espainian, aldiz, hango herritar asko zerbaitekin kezkatuak badira ez da Euskal Herria eta ETArekin, Kataluniarekin baizik.

Egiazki, eta Makiavelorena eginez, gisa honetako operazioek hainbeste sufrimendu eta kalte eragingo ez balute, ezker abertzaleak halako bizpahiru eskatuko beharko lituzke urtean, bera indartu, EAJ posizio deserosoan jarri eta, Guardia Zibila medio, Madrilen jarrera biolentoa primeran islatzen dutelako.

Azpimarragarriak izan dira, halaber, EAJk eta Bilduk Eusko Legebiltzarrean eta beste hainbat instituziotan egindako adierazpen bateratuak. Eta esanguratsua izan da, halaber, zein motz ibili den Urkullu lehendakaria euskal gizarteko 18 herritarren aurka egindako eskubide zanpaketa eta irain kolektibo berri honen aurrean. Posizio gaitz eta zaindu beharrekoa du lehendakariak, are gehiago itun garai honetan, baina nahi bada, diplomaziak ematen du gehiagorako aukera. ■

ASTE HONETAKO

zozketak



Bertsolari Txapelketa Nagusia

2 harpidunentzat bina sarrera

Urriak 19, larunbata 17:30ean
Urbeltz pilotalekua
Legazpi (GIPUZKOA)

www.bertsozale.com

1

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN



Donostiako Aquariuma

4 harpidunentzat bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2

Artium

Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

4 harpidunentzat bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

3

Ekain berri

Ekainberri

3 harpidunentzat bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

4

Okatxu

2 kamiseta opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2384. Argia)

BETSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA
Markina-Xemein
- Xabier Mendiguren Elizegi (Beasain)
- Artez Euskara Zerbitzua (Bilbo)

IRUÑEAKO PLANETARIOA
- Josu Camara Izagirre (Lezama)
- Alkizado Udal Liburutegia (Alkiza)
- Iruñezar Aek Euskaltegia (Iruñea)

EKAINBERRI
- Jose Luis Hormaetxea Alboniga (Bermeo)
- Jose Antonio Zubeldia Gaztañaga (Donostia)
- Bergarako Udal Euskaltegia (Bergara)

ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA Lizeo agenda
- Xabier Elosegi Aldasoro (Baiona)
- Enara Zubeldia Zabala (Irun)
- Jose Mari Goiburu (Donostia)
- Jose Ignacio Villar Saez (Bilbo)
- Rafael Larrañaga Albizu (Azpeitia)
- Adunako Udal Liburutegia (Aduna)
- Txebis Gorritxategi Gorosabel (Ermua)
- Teresa Alonso Herrero (Gasteiz)

MUNDUKO IPUINAK
- Eihar Egaña Garcia (Donostia)
- Santurtziko Udal Euskaltegia (Santurtzi)

* **Bisitaldietarako epea:** Bi hilabete

gunea

argia

PARTE HARTZEKO
Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30
Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com
www.argia.com/gunea

Atxega Jauregia

jatetxea

Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

✆ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com